

DIEGO CAÑAMERO

Andaluziako sindikalista

«Jabego pribatua
gizakiarenganako iraina da»



- **Sacha Rosero**, kitxua eragilea «Ez kapela, ez pontxito, ez alpargata... ezer ez da gurea, hizkuntza besterik»
- **Van-eko lurrikara** Turkiak barrakoietara kondenatu ditu kurduak
- **Aitor Arana** «Sailkapena ez da berez txarra, baina hori baino gehiago naiz, idazle polifazetiko naiz»
- **Lurralde Elkargoa** Tokiko ekonomia garatzeko beharrezkoa



dokumentalak.com

Euskarazko dokumentalen biltegia sarean

Ostiralero lan berri bat ikusgai

Dagoeneko 100 dokumental eskura

Amerikanuak
 Anuken egia
 Arrhash, pozoina
 Banlieues. Pariseko errebotak
 Basque hotel
 Bidaia Intimoak
 Botilen hilerria
 Companys eta Agirre azken erbesterantz
 Debequatuta dago oroitzea
 Elburua Gernika
 Euskal Herria: Ezkutuko zorra
 Euskararen jatorria: Enigma europar bat
 Garrasia Saharatik
 Gudari baten egunerokoa
 Haizea eta sustraiak
 Insumisioa. 20 urte desobeditzen

Iparaldea XXI
 Irakeko kurduak, bizitza bazterbidean
 Itoitz hustu arte
 Itsasoren alaba
 Nire bizi osoa espetxean
 Nömadak Tx
 Oroitarria
 Perurena
 Pluja seca - Euri lehorra
 Sagarren denbora
 Sahara marathon
 Salda badago
 Santi Brouard. Euskal Herria Osagai. Duintasuna omen
 The Yes Men fix the world
 Tortura Euskal Herrian

...eta askoz gehiago

Zure lanen bat kanal honetan sartu nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

multimedia@argia.com

www.twitter.com/dokumentalak

www.facebook.com/dokumentalak

argia.com

EGUZKI BIDEOAK elkarlanean





Azaleko argazkia:
WWW.ELIMPERTINEN-
TEDIGITAL.COM
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Iureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Añañola Sorluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2012ko abenduaren 16a, 2.349. zenbakia

DEABRUAREN ABOKATUA

MIKEL IRIZAR: «Euskarak poza eman behar du, ez pena».
ARITZ GALARRAGA / 4

ASTEKO GAIA

INDUSTRIA IPAR EUSKAL HERRIAN Ekonomiak ere bere lurra eta elkargoa behar ditu. MIKEL ASURMENDI / 5

PERTSONAIA

JEAN LOUIS DAVANT: «Zük Xiberoa esportatzen düzü!», erraten didate». MIEL A. ELUSTONDO / 10

GAIK

VAN Lurrikararen urteurrenean, drama bera.
PABLO GONZALEZ / 16

IRITZIAREN LEIHOA

AZAWAD AMAIA LASA ALEGRIA / 20

PIN PIN SERAFIN JOSE IGNAZIO ANSORENA / 22

NAFARROAN ATZERA GOAZ JOXE MANUEL IRIGOIEN / 23

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 21

TXANDAN Eguraldiaren mapa. EDU ZELAIETA / 22

BERTSO BERRIAK Arrainak eta bizikletak. UXUE ALBERDI / 23

ERDIKO KAIERA

AITOR ARANA: «Egunerokotasunetik urruntzea interesatzen zait fikzioan». IRATXE ESNAOLA / 24

LITERATURA GEMA LASARTE / 30

MUSIKA JOXI UBEDA / 31

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32

ALEA Besteak. MYRIAM GARZIA / 33

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 34

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 35

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

TERMOMETROA

DIEGO CAÑAMERO: «Gorriak garela diotenei, behar gorria dugula erantzuten diegu». AMAIA ZABALA TOLOSA / 37

SACHA ROSERO: «Kitxua biziberritzea posible dela ikusi dugu Katalunian eta Euskal Herrian». MIEL A. ELUSTONDO / 42

OROIMEN HISTORIKOA «Franco nazia zen, faxista baino gehiago». JON TORNER ZABALA / 46

EKONOMIAREN TALAIAN JUAN MARI ARREGI / 47

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

NET HURBIL Sahel haretsua hesi berdez hezetu nahian.

PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

MIKEL IRIZAR

Euskara elkarteen lehendakari, herri mugimendua argal baino ahulago dagoen honetan.

| ARITZ GALARRAGA |

Argazkia: Judit Fernandez

«Euskarak poza eman behar du, ez pena»

Ai, euskara elkarteak, erakundeen esku utzi dutela hizkuntza politika eta normalizazioa!

Delegatzeko joera egon da, oro har, baina erakundeak ez dira aski euskara berdintasun egoerara eramateko. Herritarren kemena ere behar da, erakundeen ahalmenarekin uztartuta.

Eta nola eragiten da normalizazioan hizkuntza gatazkarik sortu gabe?

Helburuak eta denbora ezkondu. Non egon nahi dugu 30 urte barru euskarari dagokionean? Behin hori adostuta, zer egin behar den oso tekniko da.

Hizkuntzaren gaia gatazka politikotik atera behar da, ados; baina politikaren erdigunean kokatuta?

Politika zeri deitzen zaion. Adostea eta hitzartzea ere politika dira. Eta euskarak hitzarmena behar du; gatazka egon dadila zergen, zaborren edo azpiegituren gainean.

Euskara aitzinatzeak erdaren atzeratzea eskatuko du, noski.

Erdarek toki gutxiagorekin ere ez dute sufrituko, hedadura handia eta hiztun asko dituzte. Euskarak aldiz gu bakarrik gauzka, hemen ez bada ez da inon indartuko.

Diskurtso modernoegia ez ote duen euskarak, historiaren eta eskubideen gaineko kalakan beti.

Euskarak marketina behar du erosiko badigu-



te. Eta erosle bakoitzari bere arrazoia aurkitu behar diogu euskara erosteko.

Tokiko informazioa erosten has daitezela...

Gertukoaren interesak gaintitu egiten ditu hizkuntzaren mugak. Tokiko komunikabideak nagusi izan ziren 90eko hamarkadan, euskarak urrezko domina lortu zuen hor.

Gaur krisiak banatzen ditu dominak, ez preseski urrezkoak.

Bai, eta euskal hedabideak lankidetzan irtengo gara krisitik. Tokiko 30 hedabide bildu gara Tokikomen, sektore osoa elkarre berrian.

Kalitatezko produktuak eskaintzeko helburuarekin, bistan da.

Nire belaunaldiak makina bat kubata negar-garri edan zuen ikastolen alde. Hori bukatu da, gaur kalitaterik gabe ez dago bezerorik.

Eta hori nola uztartu euskararen normalizazio helburuarekin?

Gauzak ondo eginda. Euskarak poza eman behar du, ez pena. Euskarari indarrak metatzea komeni zaio, zaleak egitea, ilusioa piztea.

Bai eta euskarazko hedabideak hegemoniko izateko moduan daudela sinestea ere!

Euskal hedabideetan mila lagun inguru ari da lanean. Murdoch bera ere ezin da iritsi horretara. Lankidetzan aritzea bakarrik falta zaigu hegemoniko izateko. Eta hasi gara. ■



Ekonomiak ere bere lurra eta elkargoa behar ditu

Ipar Euskal Herriko ekonomiari begira jarri gara. Industri arloa aztertu dugu bereziki, baina laborantza eta turismoa begitik kendu gabe. Lurralde Elkargoa sortzearen aukerak animatu gaitu industria txikiaren esparruan diharduten lau eragilerengana joateko. “Nolako Lurralde Elkargoa nahiko zenukete tokiko ekonomia eraikitzeko?” galdetu diegu.

| MIKEL ASURMENDI |

Argazkiak: Gaizka Iroz

IPARRALDEKO EKONOMIA egoiliarra da, ez produktiboa. Hots, egoiliarrek –hirugarren sektorea tarteko– sostengatua da, lehen eta bigarren sektoreetako ekoizleek baino. Lapurdi kostan 160.000 biztanle dira, eta barnealdean 80.000. Baxenabarren eta Zuberoan 40.000. Guztira, 280.000. Udaldian 600.000 bizilagun izaten da, horregatik azpimarratu dugu ekonomia bereziki egoiliarra dela. Iparraldea ez da krisiak gehien jotako lurraldea, hortaz. Alta, ez dauka berezko ekonomiarik.

Onarpen politikorik gabeko lurraldea denez gero, are zailago zaio tokiko ekonomia garatu

ahal izatea. Jakina denez, ekonomia turismoan finkatuta dago, ez laborantzaren ez industriaren gainean. Areago, globalizazioak eta deslokalizazioak kanpotarren kopurua emendatu dute azken hamarkadetan. Kanpoko jendea tokikoa baino kalifikatuagoa izateak, hein batean, ekoizpen sektorea kanpokoen esku izatea erraztu du. Alta bada, laborantza garrantzizkoa da, bertakoek landua: populazio aktiboaren %6 da, barnealdean %10. Barne Produktu Gordinaren %20 ekoizten du. Frantzian baino altuagoa da, batez beste.

Industria da azterketa honen zioa, halere.

ESTIA da irakaskuntza gune nagusia. Instituzio politikorik ez dagoenez, ez da inoiz Cluster programa landu modu eraginkorrez.



INDUSTRIA IPARRALDEAN



Baionako portuaren gainegitura hobetu beharra aipatu digute solaskideek.

Hautetsien Kontseiluak Frantziako Gobernuari proposatu berri dion Lurralde Elkargoz galdezka hasi gara. Erantzuna konplexua da, Lurralde Elkargoa gauzatu gabe baitago. Anartean, premisa-galdera hauek kontuan hartu ditugu: “Turismorik ez” esateak ez du balio. Nolakoa behar da, ordea? Turismoa industriarekin eta laborantzarekin ongi uztartzeko zer estrategia behar da? Hegoaldearekin artikulatu behar al da?

Iparraldean ez da des-industrializaziorik izan inoiz. Aitzitik, industriaren kultura ez da egundo garatu. Aeronautika da salbuespena. Baina eremu hori ez da bertako industriaren ezaugarri. Gainera, industria hori Estatuko iparraldera desplazatzen ari da. Areago, usteak ustel dira: Frantzia ez da potentzia industrial egun. Euskal Herrian, berriz, Maule da tokiko industria tipiaren plaza eta eredu. Hazparne eta Uztaritze ere izan dira iraganen. Amikuzen, Garazin eta Baigorri industria molde berriak garatzen ari dira laborantzako mozkinen transformazioaren industria medio.

Ekonomia eragileak eta hezkuntza

Merkataritza eta Industria Ganbera (MIG) da industriaren erreferente nagusia, Herrikoa ez da. Hemen tokiko enpresen eragile esanguratsuak izaki. Miarritzeko ESTIA (Ingeniaritza Eskola) da irakaskuntza-gune nagusia. Baionako UIT, bestalde. Tokiko instituzio politikorik ez dagoenez, ez da inoiz Cluster pro-

grama landu modu eraginkorrez. Hots, formazioa oinarrizkoa da, baina egitura sendorik ez dago. Enpresa txikiak laguntzeko egitura teknikoak behar dira. Lurralde kontzeptua funtsezkoa da industriaren garapen estrategian. Galdera da: zer behar da industria eraginkortasunez sustatzeko?

Uztaritzeko Olaberria kooperatiban gaude. 15 langile ari dira moldegintzan, automozioaren sektorearentzat. Beñat Castorene da gerentea. Lurralde Elkargoak onik baino ez lukeela ekarriko diosku: “Industria ez da sekula hainbatekoa izan gure lurraldean, eta azken 40 urteetan zegoena deuseztatu da. Zapata-gintza, bonetagintza, eiharak desagertu dira. Duela 200 urte zeuden egitura aurre-industrialak gutxituz joan dira. Alta, batez ere, industriarekiko grina jendearen espirtuetan ahitu da”. Olaberriako gerentearen hitzetan, laborantzatik industriara iragaitean huts egin zuen jendeak. Ez du Hegoaldeko industrian eman den bilakaerarekin alderatu nahi, baina egungo teknologia-osagailuak ekoizteko enpresak eraikitzea bazegoela uste du: “Kultura hori ez badugu zuzentzen egun, biziki zaila dena, gure ekonomia hondoratuko da”. Demagun Lurralde Elkargoa sortzen dela... “agintariak deus aitzin, iraultza ideologikoa eragin beharko lukete jendartearen”. Industrian aritzeko gogo eskasa da larriena: “Politikariak gure herrian industria garatu daitekeela kontzientziarazi behar dituzte herritarrak. Nahikaririk baldin badute, posiblea da”. Ez da urrutira joan behar, bertan bada zer landua: “Estatuak ez du sekula azpiegitura berezirik sortu gure ekonomiarako. Horregatik, Hegoaldeko egiturak baliatu behar ditugu ahal dugun neurrian. Guk Gernikako kooperatiba eta enpresekin egin dugu lan, bilerak euskaraz

“Enpresak atomizatuak direnez, elkarren arteko lanak uztartzen saiatzen gara”

**Francis Carricart,
Indar Development**

eginez. Ekonomian ez ezik, kulturen ere aurrera ari ginen. Gero krisia heldu da. Iparraldeko kultur industria ezak gure arteko harremanak arunt mugatu ditu”. Gure arteko beste muga bat, bere hitzetan.

Euskal nortasuna barnealdean dagoela dio: Maule, Atharratze, Garazi, Hazparne, Kanbo, Uztaritze... “Baina gazteek ez dute bizitzetik ikusten Euskal Herrian. Gehienez

BAB delakoan, kostaldean. Gazteak arras hirirtatu dira”. Barnealdean aspertzen omen dira. Castorenek ez du politikariengan itxaropenik, politikaren funts nagusia ekonomia da eta Iparraldean ekonomia politika da. Euskal Herria biziko bada, tokiko ekonomia sustatu behar da: “BABeko %80 frantsesak dira. Arazoa ideologikoa da. Zuzena ere ez da erraitea den dena ekonomia dela, baina abertzaleen estrategia BABn gehiengoa lortzea bada, ez dago zer

Pantxoa Bimboire: Merkataritza eta Industria Ganberako presidentea «Lurralde Elkargoak kostaldearen eta barnealdearen lokarri izan behar luke»

Zein izan litezke enpresarien abantailak Lurralde Elkargoan onartuz gero?

Departamenduak darabilen aurrekontua hobekiago erabiliko luke Lurralde Elkargoak. Ekonomiaren eskumena orokorra da, eta erakunde askoren (Erregioaren, Departamenduari eta Herri Elkargoen) esku denez, errate baterako, tokiko enpresa batek baimenak ukateko hala nola horien araberako dirua lortzeko, ez luke horrenbeste energia eta denbora galduko.



Lurraldetasuna ere hobeto kudea liteke, naski.

Bai. Kostaldean bi herri elkargo dira nagusi: Baiona-Angelu-Biarritz eta Hendaia-Donibane Lohizune-Urruña. Herri elkargo bi horiek indartsuegiak dira barnealdeko herri elkargoen aldean. Beren politikak ez du bermatzen gure lurraldearen garapen orekatua, ez baitira horretarako eginak. Lurralde elkargo berri batek egiazko estrategia zutik ezarri beharko luke, adibidez, kostaldearen eta barnealdearen lokarria –eta garapen-lurraren funtzioen arabera orekatuz, hots, laborantzaren, lantegien, etxebizitzaren beharrak arbitratuz.

Iparraldeko industriak zer behar du bereziki?

Iparraldeko ekonomian –Frantziakoan bezala funtsean– industria sektoreak arrakasta guti dauka eliteetan. Hemen ero egon behar da gazte bati industriaren aldeko aholkua emateko. Hirugarren sektoreak eta administrazioak biltzen ditu goi-mailako indar guztiak. Louis Galloisen txostenak dioenez, industriako

lan-enpleguaren tasa %12 da Frantzian. Legedia gero eta zorrotzagoa da: lan baldintzak ezartzean kutsadura zorrozki begiratu da. Iparraldeak ere ildo bera segitu behar du. Adibidez, bere tradizioa segituz, nortasun handiko industriari anitz baitaude, Zuberoak kinka txarretik ateratzeko beste aukerarik ez duenez, industria enpleguetan %20ko tasa lortu du! Maulen maila ertaineko eskola tekniko izateak laguntzen du. Gazteak eskola horretatik formazio egoki eta eraginkorarekin ateratzen baitira enpleguak izateko.

MIGek zein arlori eman behar dio lehentasuna?

Baionako portuaren gainegitura hobetu behar du, zonaldeak industriarako eta lantegietarako erreserbatuz, Iparralde txukun, eder eta geldi honetan erresistentziak gogorak daudela jakinik ere. Auzapezek eta politikariek oro har, egiazko ardurak dituzte zeregin horretan.

Abertzale gisa, zazpi ahalak egin behar ditugu kanpotik sartzen den dirua hemen egon dadin: tokiko erosketak eginez, partikulariki agro-elikadurak. Hala-ber, enpresak hemendik kudeatuak izan daitezten, kapitala hemengo izateko inizatiba autonomoak suspertu behar dira, Herrikoa eta Hemen eragileak lagunduz, gure lurraldean dinamika ekonomikoa sortzeko. Iparraldeko marka azkartu behar dugu tokiko enpresek lurraldearekin lokarri iraunkorra ukan dezaten alor guzietan, bertako jatorria ezagutua izan dadin merkatuan.

eginik. BABen alde eginez, adibidez, Baigorri ibarra uzten dugu hiltzen. Frantsesek euskal langilea eraldatzea lortu zuten aspaldi. Laborari semeak kostaldera joan ziren, administrazio, turismo eta zerbitzu sektoreetan aritzeko. Populu bohemio bihurtu ginen”. Lurralde subentzionatua da Iparraldea. Lurrari eta tokiko ekoizpenari lotutako lanaren gustua galdua ikusten du, bertako ekonomiarik gabe ez dela posible nazioa sortzea. Abertzale izatea ez da aski: “Zentzu horretan ez gara gauza gure izatea eraikitzeko”, diosku. Herri kolonizatuaren izaera azpimarratu digu. Politikariek optimismo okerra darabilte. Herri eta populu txipia izatea ez da larria bere aburuz: “Helburu argiak baldin baditugu asko lortzen ahal da. Gure lur eremuan sinestu behar dugu. Laborantzari atxiki zaion gisan, industria ere garatu liteke. Garazin eta Baigorri industria ekimen zenbait abiatu da laborantzaren mozkinen inguruan. Hegoaldeko kultura ere garatu daiteke hemen. Olaberria enpresa da horren adi-

bidea: enpresa tipiak sareetan ehundu eta zabaldu behar dira ibarretan. Urola, Leintz, Goierri ibarretan bezala. Beñat Castorenek bestela ez du etorkizunik ikusten Iparraldean.

Amikuze, Iholdi, Garazi, Baigorri

Baxenabarrera joan gara. Garazin gaude. 1960ko hamarkadan iraultza izan zen laborantzaren. Azken bi hamarkadetan bigarren iraultza gisakoa eman da. Laborariek ekoizpenak transformatzen dituzte. Mozkinak ekoizleentzako eskutik kontsumitzaileen eskura doaz zuzen. Francis Carricart dugu horren eragile. Herrien Elkargorako diharduen Indar-Developpement sailaren arduraduna da. Hiru lan ardatz azpimarratu dizkigu. Bat: proiektu sortzen laguntzea, enpresen bideragarritasuna aztertzea, eta behar teknikoak eskaintzea MIGen bitartez. Bi: lan-guneak muntatzea merkataritzan, eta administrazio-txostenak lantzea. Hiru: enpresak atomizatuak direnez, elkarren arteko lanak uztartzen saiatzea.

INDUSTRIA IPARRALDEAN



Turistek Ipar Euskal Herria garbia nahi dute, koloretsua. Alabaina, populua biziko bada, industriaren garapena ere funtsezkoa da.

Laborariaz gain, ontzi, espartin edota altzari egileak ari dira ibarretan. Laborantza da ekonomiaren %50. Sektore agro-alimentarioak indarra hartu du: Oteiza, Elizaldia, Agerria eta Aznabar dira ekoizle eta mozkinen izen ezagunak. Enpresa txikiak dira. Kalitateko lana ekoizteko antolakuntza eta formazioa landu behar dituzte: “Ekoizle hauek ez dute handitu nahi. Sobera produzituz gero, saltzeko bitartekari handiak behar dituzte, eta merkatu handietan irabazpen etekinak aldatzen dira. Merkatu hori arriskutsua da”. Lurraren arazoaz mintzo zaigu Carricart: “Enpresak eraikitzekeo lurra bada aski, baina espekulazioa handia da. Lurra merkeago erosten da etxeak egiteko, enpresa-guneak eraikitzekeo baino. Jendeak ere errazago saltzen du lurra etxeen eraikitzekeo, industria garatzeko baino. Lurra badago. Zertan eta nola antolatu da arazoa”. Nola ez den antolatu behar azaldu digu: “Amikuzen fundizio bat ezarri zuten. Bideko burdin-bereizgarriak egiten dituen lantegia da, 70 langileko enpresa. Inaugurazio ederra eta politikoki ontsa ‘saldua’. Langile batto ere ez da tokikoa alabaina. Orthezetik heldu dira lanera eta egunean itzuli etxera. Lantegiko teknikariak, berriz, Baionatik datoz”. Erran nahi baita, bertako inor ez dagoela. Donapaleu, Hazparne, Maule edo Garaziko eskoletan ikasi duten seme-abalak ere ez. Horko lizeoetan ez da soldatzaile edo antzeko ofiziorik ikasten. Eta behar direnean kanpotik ekartzen dituzte. Hori da egin behar ez dena, baina hori da batez ere eredia: “Barnealdean ez da ekoizpen lanetan aritzeko usaiarik. Gazteek informati-

“Frantzian ez dago industriarako kulturarik, harrigarria bada ere. Funtzionarioen kultura nagusitu da”

**Michel Etxebest,
Artzainak enpresa**

kari, irakasle edo mediku izan nahi dute”. Nola azkartu industria? Carricartek ez du Baionako MIG eta Gipuzkoako Ganbararen arteko lana gutxiesten. Bere ustez, Mugaz Gaindiko egituraren bidez diru pizar heldu da, baina egiten dena gutxi da, eremua ere tipia. Harreman gehienak instituzioen artekoak dira. Beñat Castorenen bidea hobesten du Carricartek eta Nafarroako Cederna-Garalur enpresa-sarearen harremanak landu ditu iragan urteotan.

Lurralde Elkargoaz mintzatu gara segidan: “Hegoaldearekin harremanak izateko egitura ikusten dute batzuek. Iparraldea behingoz onartua izanen dela, bestetuek. Beste multzo batek dio, ‘hauek kalmatuko ditugu, baina azkenean instituziorik ez dugu emanen’. Gu Bordeleko politikaren menpe gara. Hegoaldearekin lan gehiago egin beharko genuke. Hegoaldearekin harremanak sustatzeko zer delibero hartuko duten? Nik ere ez dut konfiantza handirik”. Ekonomia eta politika arrunt bereizia baldin badaude, Iparraldean bezala, beti ekoiztuko da merkeen egiten den tokian: “Beraz, politika egin behar da. Gure ekoizpen-burujabetza behar dugu eta Iparraldean ez dugu. Bordeleko botereek ez digute emanen, ez dute gure beharrik, eta gainera turismoa nahi dute sustatu”. Lan harremanak, distantziaren aldetik, logikoagoak dira Hegoaldearekin egitea. Bordele urrun dago. Ehun kilometro inguruan merkatu izugarria da. Donostia inguruan eta Nafarroako mendialdean dago gure ekonomiaren merkatu naturala. Guk ematen ahal dugu eta hartu ere. Europako iparraldera bidean ate bat izan beharko genuke hegoaldeko inpresentzat.

Parisen horren beldur ote dagoen galdetu diogu. Parisek ez bide du hori natural ikusten. Bere esperientzia azaldu digu: “Parisko altzari enpresa batek Arrosako Denek enpresarekin lan batzuk egin nahi zituen. Arrazoi tekniko batzuk zirela medio, hemen posible ez zenez, Arrosatik Donostia ondoko enpresa batera joatea proposatu nion. Gipuzkoan bazen lan egitea, baina haien hitzetan ‘ez da posible’. Muga izugarria da. Frantziako

beste norbaitekin egitea erabaki zuen. Lurralde Elkargoak ez du eskumen berezirik izanzen, baina ate hori zabaltzen lagundu lezake. Edo gure bi aldean arteko harremanak sustatzen lagundu bederen”.

Maule, industria tipiaren eredia

Artzainak enpresako buru Michel Etxebestekin gaude, Maulen. Zortzi lantoki biltzen ditu sarean. Maulez gain, Atharratzen, Gotainen eta Ahurtin gaude. Mekanizazio sektorean, itsasgintzan eta aeronautikan dihardute.

Beñat Castoreneren behako zorrotza

Uztaritzeko Olaberria kooperatibako buruaren hitzetan, "Iparraldeko ekonomiaz mintzo den jendea gutti da, eta enpresen kopuru eskasaz axolaten denaz are gutxiago. Gizartearen egungo portaera ikusita, egoera ez da laster eta erraz aldatuko. Hona adibide bi frogatzat: Etxepare Lizeoko ikasketetarik landa oso gutti dira enpresen karreretara zuzentzen direnak. ESTIA ingeniari ikastetxean euskaldunak bakar batzuk baizik ez dira. Mauleko edo Hazparneko Lizeo teknikoetan deabrua ikusten dute beren klaseak betetzeko, tokiko gazteak ezin erakarri. Hortik datoz guk sortutako enpresetan usu ikusten ditugun bitxikeriak: doi bat tarrotzen hasi orduko, ezinbestean kanpotik jinarazitako teknikaria kontratatu behar. Enpresa sortzaile euskaldunak lekukoa pasatzeko orduan, ezinbestean ondokoa kanpoan aurkitu behar. Alta, horrelako egoeraren ondorioak aspalditik ezagun dira, gure aberrian beste edozein herritan bezala: euskaldunen desterratzea eta kanpokoen etortzea guk utzitako hutsunea betetzera. Alabaina, gure laborariek, nahirikan ere, ezin dute berek bakarrik eremu guztia zaindu eta betetzen ahal! Nola, hola portatuz, euskal identitatearen biziraupenak jarraitzea espero? Noiz konprenituko ote, batez ere beren burua abertzaletzat daukaten gazteek, identitatea galtzear duen populu batean, lehenbiziko urratsa dela herrian bertan lan egitea eta horretarako gure burua gaztetik preparatzea?".

250 langile dira: "Frantzian ez dago industria-rako kulturarik, harrigarria bada ere. Funtzionarioen kultura nagusitu da. Ekonomia nobleena industria da, bertan sortua, tipia, zerbitzuak barne. Zorigaitzez jendeak ez du ezagutzen ekonomiaren oinarria zein den. Formazio eskasa dago, industriarako kultur gabezia dago. Lege sozialak ez dira ezagutzen. Niri horrek min egiten dit" dio Mauleko auzapeza ere den Etxebestek.

Zuberoan zernahi lur dagoela dirudien arren, ez da horrela. Arazoa ez da industriak laborantzari lurra hartzea, baizik kanpotik datorren jendeak etxebizitzak eraikitzea. Laborariak aspaldi desagertu ziren kostaldean, Zuberoan ere hori gerta liteke. Horregatik

EPL (Lur-zerga Publikoko Erakundea) legea ezarri da. Honen bidez arautzen da luraren arazoa. Legeak hautetsiak gaia hobeki kudeatzera behartu ditu. Lehen urtea hautetsiak formatzen pasa zuten, kanpotik heldu den jende dirudunaren presioa izugarria baita: "Euskal Herria garbia nahi dute, koloretsua. Legeak zazpi urte bete ditu eta etxe-sustatzaileek ezin dute EPLren arauak bete gabe eraiki" diosku solaskideak. Lurraren prezioa izugarri da. EPLren legea betetzea ez dela politika egitea dio, herriak emandako boterearen arabera eraikitzea baizik. Iparraldean, Maulen konparazione, EPL ezartzen lehenak izan dira Estatuan. Biarnon, aldiz, departamenduan, ez dute EPL erabili oraindik.

Turismoari dagokionean, Euskal Agentzia behar dela dio Etxebestek. Turismoa, laborantza eta industriaren garapenak uztartu behar direla. Lurralde Elkargoak hori kontuan hartu beharko luke. Industriaz berriz, hona bere nahia: "Bat: estabilizazio fiskala ezartzea, legea sei hilabetetan behin aldatzen baita. Bi: langile-riaren soldataren kostua apalagoa izateko, deslokalizaziorik ez izatea. Adibidez, Portugalen hilabeteko sariaren karga sozialak %22 dira. Frantzian, enpresak kargen %50 hartu behar du bere gain. Arazo handia da". Lurralde Elkargoak ez luke markoa aldatuko, bere ustez. Akitaniak Parisek agindutakoa kudeatuko du. Hegoaldearekin harremana honela azaldu digu: "Nik hamar urtez zernahi ahalegin egin dut Hegoaldearekin lotzeko. Hegoaldetik ikusita Iparraldeko industria ezdeusa da. Munduko merkatua funtsean bera da denentzat. Bion arteko lankidetzaren sortzea xedea da, baina ametsa ere bai. Began gauzatzen dira ametsak. Adibidez, Gamesa zen gure ametsa. Baina egoera guztiz aldatu da. Dena mundializatu da. Gasteizeko enpresariak ez dira Maulera begira, Berlinera edo Pekinera baizik. Normala da. Gure erroka, gure tipian, inguruan atxikitzea da". ■



Mikeletegi pasealekua 53 • DONOSTIA
943308220 • www.arbelaitz.com

Arbelaitz Jatetxea

JEAN LOUIS DAVANT

«‘Zük Xiberoa esportatzen düzü!’ erraten didate»

Egungo Zuberoak euskarari eman dion izenik handienetarik duzu Jean Louis Davant. Irakasle, idazle, politikari, euskaltzain, guraso... Hamaika ertz baditu, eta soseguz eta patxadaz bihitu dizkigu batzuk eta besteak.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

Hona heltzen garelarik, Zuberoara gatoz. Hona heldu eta, aldiz, beti da Xiberoa eta xiberotarra. Zuberoa da izen historikoa, Euskaltzaindian izen ofizial bezala onartu duguna. Baina, besteak ere zilegi dira, haizu dira, *Xiberoa* eta beste.

Bi minutu, bi ikasgai. Irakasle iaioa zaitugu, horretan eman duzu bizia ere.

Bai, beti irakasle.

Haatik, ez euskara irakasle, baina agronomia, ingeniari agronomo ikasi zenuenez. Zu, izan ere, laborari familian sortua zara.

Bai, hemen ondoan, bidez bestaldetik den etxean: Zabalaina. Bizi garen etxea berria da, Aizagerrea. Etxe zahar bat bazen hemendik hurbil, aitak errosia. Lurrera joan zen, eta haren izena hartu du gure honek. Ni Zabalainekoa nauzu, Zabalaineko Jean-Louis. Lau senide gara, ni bigarrena. Beraz, gehien anaiak hartu zuen etxaldea. Primua zen. Hirugarrena arreba, Muskildirat ezkondua, laborari batekin. Laugarrenak ere ingeniari eskola egin zuen. Lur Berrin lan egin zuen luzaz, Makeako esnetegian ere bai gero, eta ondotik emaztearekin joan zen Galiziara. Hangoa du emaztea, galiziarra, frantses irakaslea, eta han egon ziren. Orain, azkenik, Nafarroan dira. Emazteak aldaketa galdatu zuen, eta postua lortu zuen Zangozako institutuan. Berriki erretiratuak dira biak eta Nafarroa Beherean, Arberatzen dituzu.

Mintzo zarelarik, bakea ematen duzu...

Ez dakit batere. Komunikatzea maite dut, eta komunikatzea bi aldeetara da, ez bakarrik mintzatzea baina ikustea besteak entzuten

ote zaituen, ulertzen zaituen, eta berak ere zer pentsatzen duen, zer erranen duen adi egotea. Joan-etorri bat bada bi pertsonaren artean.

Kristau katoliko zara, sinestun.

Hemen denak hala ziren, kristau eta katoliko. Baziren elizan guti ibiltzen zirenak, baina besta onetan han izaten ziren, elizan. Euskaraz ikasi nuen katixima, dotrina, eta hor euskara ona, zuberera klasikoa dastatu nuen, eta genuen. [Atanase] Belapeirerekin hasi zen hori, XVII. mendean. Hark idatzi zituen lehenbiziko zubererazko liburuak. Hark ezarri zuen erredua, eta Elizak beti segitu du eredu hori. Apezek zuberera klasikoan idatzi dute beti.

“Gazteek ez dute zuberera klasiko hori ezagutzen”. Zer dakite gazteek?

Etxean ikasi dutena ere gero eta gutxiago. Eskolan ikasi dutena dakite, ikastolan ikasi dutena bereziki, edo AEKn ikasi dutena. Zubereraz ikasten dute, nahiko klasikoan, erran behar da.

Zuberoako gazteek hemengo euskara batua ez dute ezagutzen, “nola ez diren elizan ibiltzen” erran duzu, irri eginez aldi berean.

Bai, bitxi iduri zait bat-batean denek eliza uztea. Bat-batean denek fedea galdu dute? Ez naiz seguru. Baina lehen ere, denak ibiltzen zirenean elizan, denek ote zuten fede sakona? Zalantzak ditut, zeren gure apeza xahartu zenean, ez zuen entzuten, orduan, solairuan, gaineko partean, mutil gaztetxoak kalakan ari ziren meza denbora guzian. Nik pentsatzen nuen: “Zertara datoz elizara?”. Hala ere,



NORTASUN AGIRIA

Jean Louis Davant Irtzabal (Ürrüstoi-Larrabile, 1935), irakasle, politikari, idazle, euskaltzain... Zabalailea sortetxea, laborari etxea, Agronomia ikasketak, Aljeriako gerla... Enbata, EHAS, Euskal Batasuna... Saiakera, poesia, nobela, trajeria... Familia. Euskararen eta euskal kulturaren misiolari.

batzuk zintzotu dira ondotik. Erran nahi dut lehen ez zutela denek fede handirik, baina orduan moda zen elizara joatekoa. Amak bidaltzen zituen, amagatik joaten ziren asko, edo besteek bezala egin nahiz, edo besteren ikusteko mezatik ateratzean ostatura joateko. Orain haizea arras beste aldera dabil, arras! Egia da, Iparraldean mezak luze izaten direla. Hegoaldean, denbora erdiz ematen dituzte, eta oraino batzuek diote luzeak direla. Hemen ordubete hartzen du mezak, usaian. Han ordu erdiz joana da.

Luze eta labur. Gure alderdian ez da pastoralak bezain luze irauten duen ezer, deus!

Bai. Hegoaldekoak ez zarete normalean pastoral zaleak... Han hiritar mentea duzue, pazientzia guti, beti denboraren puntan bizi zarete. Iparraldean, hiritarrek ere, patxada

gehiago dute. Ez nekazari edo baserri mundukoek bezainbat, baina hori badago. Han arras modernoak zarete, ez dakit ohartzen zareten ere! Beharbada, horretan pixka bat neofitak ere bai zuek, eta neofitek, badakizu, gauzak egiten dituzte besteek baino hobeki, edo gehiago, azkarrago edo indartsuago.

1935ean sortu zinen, kristau hazi zinen, Laborantza ikasketak egin zenituen... 1957an izkiriartzen ari zinen *Gazte* aldizkarian.

Baionan ateratzen zuten, baserri gazteriaren hilabetekaria zen. Udan etxean nintzen urte hartan. Gero, ikastaldi bat egin nuen Clermont-Ferrandeko eskualdean, bi hilabetez, eta ondotik lan egin nuen Gerezieta Garroan. Irakasten hasi nintzen, eta ber denboran laborantzako teknikari batekin lan egiten nuen, ikasteko. Laborantzaz, eta ideiez ere, izkiriartzen nuen. Bizioa banuen izkiriartzen ikasi nuenetik. Lehenik, eskolan frantsesez izkiriartzen genuen. Mauleko institutuan nintzelarik, ordea, Xarritonek bultzatu ninduen euskaraz idaztera. Eskualtzaleen Biltzarrak urtero lehiaketa antolatzen zuen ikasleen artean, eta horretan parte hartzera lehiarazi ninduen, 17 urtetan.

Xarriton zuei gaztelania erakusten, beraz. Sasoi batean, frantsesa ikasten genuen guk,



orain ingelesez ari dira eskolan. Hegoaldekoa Iparraldera etorri eta ezin komunikaturik dabilza sarri, euskara sobera ez konprenitzen, frantsesez deus ez dakitela. Herri bat lotzeko modu makurra.

Nik hizkuntzak maite nituen. 6 urtetan ez nekien frantsesez hitzik, baina eskolan berehala ikasi nuen. Gero, Mauleko St François kolegio edo institutu katoliko hartan latinez ikastera behartu ninduten. Hori dela-eta, espainolez ere nahiko ongi ikasi nuen, espainol literarioan. Horrek ez du bideak galdeztzeko balio, baina irakurtzen dut, eta idatz nezake –huts batzuk eginez, bistan da–, mintzatu gutxiago. Udako oporrak Aragoiko mendian hartzen genituen, gazteago ginelarik. Orain, gutxiago. Berehala jartzen nintzen gaztelaniaz mintzatzen. Ahal nuke. Hegoaldera joaten naizelarik euskaraz ari naiz, bistan da.

Hasi zinen izkiriartzen, eta ez zara gelditu. Pausarik ez da izan. Are, oraino ere izkiriartzen ari zara, beti.

Soldaduskan ez nuen idatzi.

Aljerian?

Bai. Behin idatzi nuen, eta izeba batek galdegion zion ene anaia gehienari: “Baina, idazteko eskubidea badu?”. Eta ez genuen! Armadan

Frantsesez ere bai

“Frantsesez ere idazten dut, bai. Misiolariak publikoaren hizkuntza hartzen du. Badago euskaldun asko ere, euskaraz irakurtzen ez duenik, eta horier ere ele ona, berri ona, adierazi behar zaie. Alabaina, gehienetan euskaraz idatzi dut, eta idazten. Hogei liburu, bederen, baditut agertuak euskaraz. Frantsesez, biga”.

normalki ez duzu idazten ahal, baimenik edo kontrolik gabe. Gainera, Aljerian gertatzen ziren gauzekin! Orduan, gelditu nintzen, ez nuen idatzi bi urtez.

Aljeriakorik ez duzu inoiz idatzi?

Behin. Aljerren bazen soldaduen aldizkari bat [*Eskual Herria: Bulletin périodique des Basques d'Alger*] eta hara idatzi nuen beste behin, baina ez zuten hartu. Kontuz ibiltzen nintzen, Segurtasun Militarrean bainintzen soldadu.

Zer da lehenengo, Jean-Louis idazlea, politikaria, irakaslea...?

Ni idazlea bai, idazteko bizioa badut. Irakurtzekoa eta idaztekoa, biak elkarrekin. Herritar bezala bai, politikari interesatua nintzen. Zuzenean sartzeko, ez. Abertzaletasunez sartu nintzen, ez sobera gogotik, pixka bat behartu ninduten. Gero, sartu ondoan, aurrera egin behar! Horretarako, abertzaletasunaren misiolari sartu nintzen politikan.

Enbatan lehenbizi.

61ean.

Frantsesez ari zineten orduan.

Bai, asko, zeren buru handiak frantzimantak ziren.

Kar, kar, kar.

Frantzimantak erraten dut, baina Zuberoan ez da gaiztoki erraten. Frankofonia erran nahi du. Zuberoatik kanpo halako mespretxu batekin erraten da. Frantximanta. Gaskoinetik hartua da, frankofonia errateko.

Emaztekirik ez zen...

Ez, denak gizonezko. Nik proposatu nuen ene emaztearen ekartzea. "Ez, ez, mementoan gizonak bakarrik!", erran zidan Aita Larzabalek. "Gero, ikusiko dugu!". Eta bai, gero sartu ziren, 63an, buruzagitzan. Argitxu Noblia, eta beste batzuk. ETAn ere horrela zen. ETA Enbataren ber denboran sortu baitzen. Harremanetan ziren buruak.

ETA ere hor zen...

Baina orduan ez zuen nehor hiltzen.

Horretan hasi zen gero.

Gero. Enbata 60an hasi zen, ETAKoen lehen hilketak, 1968an. Lehenik, zorte txarrez gertatu ziren, ez ziren nahitara eginak izan. Ez ziren bila joan.

Manzanasen bila bai, joan ziren.

Bai, torturatzailea zelako.

Zuribidea zen?

Ez dakit. Hastapenean guti hiltzen zuten.

Bat izan, hamaika izan, axola da?

Ez da berdin. Baten heriotza edo hamaikarena, ez da berdin. Hamaikarena, hamaika aldiz handiagoa da. Bistan da.

Hori erraten du fedeak?

Zentzuak erraten du hori.

EHASen sorreran ere parte hartu zenuen, ez dakit gogoz ala beharturik orduan ere.

Parte hartu nuen, bai, zeren Frantziako Gobernuak Enbata debekatu zuen. Bi aitz-

Poesia

"Biziki maite dut frantses poesia, mundu bat zoragarria, izigarri aberatsa. Erran nezake itsuski aberatsa dela. Heinetik kanpoko aberastasuna du frantses poesiak. Maite dut. Ene poesiaren bi iturriak dira frantses poesia -ezin dut ukatu-, eta euskal poesia herrikoia. Hauetan, Etxahun biak, kantugintza eta abar. Bestea gero dut ikusi, eta ikasi".

kia eman zituen: ideia separatistak, eta bortizkeria. Dei egin genuen, eta Estatu Kontseiluak debekua baieztatu zuen, baina bortizkeriarik ez zuen aipatu. Ideietan oinarritu zen soilik, idatzi genituen testuetan. Xede separatista.

Eliztar eta sozialista, zu.

Eta non da eragozpena? Sozialismo laikoa badago. Beti marxismoari lotzen da, baina aitzinetik baziren sozialistak, bereziki Frantziatik. Ez ziren baitezpada ateak, batzuk kristauak ziren. Ni sozialismo laikoaren alde nago, ez marxista, are gutxiago leninista.

76an, Euskaltzaindira sartzeko hitzaldian horixe esan zenuen, bazenuela Xahotik, bazenuela Abbadiatik.

Hala da. Ene bizitza horrelakoa da. Ez naiz kortxela batean, korrale batean sar eta han egoteko. Elkartasun ezberdinak baditugu, eta pentsatzen dut eraztun olinpikoak bezala, modu ezberdinean lotzen baitira elkarri, nik ere elkartasun mota bat baino gehiago badudala: kristau eraztuna, herritar eraztuna -ez dira bata bestearen baitan urtzen-, sindikalista eraztuna... Beraz, elkartasunak. Orain "solidaritz" erraten dute. Horren beharrik ez dugu, "elkartasuna" badugu! Euskaraz ari garenean euskaraz egin dezagun, eta ez beste hizkuntza batean.

Noiz utzi zenuen politika?

80an EHASen militatzea utzi nuen. Euskal Batasuna sortu zen 85-86an, eta urte pare batez parte hartu nuen. Abertzaleen Batasunean sartu zen gero hura, baina orduko z gelditua nintzen. Euskaltzaindian sartu naizenetik emeki-emeki politikatik urruntzen hasi naiz, eta gehiago sartzeko hizkuntzako eta kulturako gaietan. Euskaltzaindian ez duzu politikarik egin behar, eta, beraz, halako distantziaren hartzen laguntzen zaitu horrek. Hautetsiekin lan egin behar duzu euskararen



Ganbazko burrunzia

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com



OFF THE RECORD

Bakea

Bakea ematen du Jean-Louis-ek. Pausatuki mintzo zaizu, eleak ez ditu sobera. “Beharbada erraztasunik ez dut komunikatzeko” erran dauku. Menturaz, hanitxek baino haboro erraiten du bi ele eginik. Ez du bere burua goersten ibili beharrik. Apalik beti. Gozo eta atsegin. Bakerik bada, Zabalainean da, Davant senar-emazteen ondoan. Jo hara, segur duzue ate irekia. Eta bakea.

alde, eta ezin dituzu gehiegi eraso, gero haiekin lan egin nahi baduzu. Bestalde, ene misiolaritzaz akitua nintzen, hogeita zenbait urtean politikari eman nintzen, nire jitea ez zelarik. Ez nintzen aski hotza horretarako. Hori banekien. Armarik gabeko gerla da politika, eta ni ez naiz gerlaria. Haserre naizelarik bai, bortizkeriaren tentaldia badut, denek bezala, baina biziki fite pasatzen zait, eta orokorki badakit bortizkeria ez dela bidea, ez duela onik ekartzen. Baina ez dut besteentzat erranen zer egin behar duten, ni ene kasa ari naiz, ahal bezala, ez naiz besteren kontzientzia, ene urratsak ene ahalen arabera neurtzen ditut.

Poesia herrikoia duzue pastorala. Hori ere idatzia zara.

Lehena, *Abadia Ürrüstoi*. Aita hemen bertakoa zuen Abadiak. Pastorala erran duzu zuk, baina izen zaharra *trajeria* duzu. Idazkiaren izena hala da, *trajeria*. Pastorala, aldiz, ematen den jai hura da. Junes Casenavek ere ber gauza erranen dizu. Horretan bat gaude. *Trajeria* idazten dugularik, Hegoaldean *tragedia* jartzen digute. Ez! Badakigu *tragedia* zer den! *Trajeria* gauza berezia da, *tragediatik* badu, baina ez da *baliokidea*. Oraingo *pastoral* berrietan *trajeria* hitza agertu da, erro zaharretara itzultzen da, eta ongi deritzot. Ene lanen afixetan *pastoral* agertu da, baina *liburuan* *trajeria* deitzen dut, eta izenburuan ere, *trajeria*. Horrekin ados nago. Baina horren antzeztea ez dugu idazleok erabakitzen. Antolatzaileek entzuten gaituzten edo ez, beren komenientziara egiten dute.

Junes Casenaveren errana dut gogoan, aldizkari honetan bertan: “Dena dantza eta korri ez da pastorala”, erratera zetorren.

Badakit Junes ni baino zorrotzagoa dela, bai. Hura dugu maisua. Gero, ikasleak ez du beti

maisua irakatsi guzia egin. Casenavek kritika zuzenak baditu eginak, eta haren errana beti kontuan hartu behar dugu, zeren Casenavek hiru gauza ekarri zizkigun *pastoralera*: egiazko historiaren errespetua –aitzinetik leienda batetik idazten baitzuten–; bigarrena, bertso-gintzan zorrotasuna –aitzinetik ez zena–; eta hirugarrena, euskararen maila. Asko ekarri digu Casenavek, Junesek. Haatik, historia ehuneko ehun errespetatuz... kontuz jendearen ez aspertzeari! Erromantizismo pixka bat ere behar dela pentsu dut, eta ezagutzen ez diren puntuetan asmakizuna ez datorrela gaizki.

“Adinean goiti”, erran nizun telefonatu zintudalarik.

Eta nik “hiltzeko presarik ez dugu!” erran. Kar, kar, kar. Presarik ez, segur! Lanak utziak ditut, ez naiz gehiago irakasle, Euskaltzaindiko bilkuretara ere ez naiz usu joaten... baina idazten dut, bai. *Liburugaiak* ere baditut oraindik prest, bost *liburugai*, ia prestik. Bestalde, bost *kazetatan* idazten dut, ez maiz, baina hilean behin bakoitzean. *Le Journal*, *Herria*, *Enbata*, Xiberoko parrokiaren hilabetekarian, *Laborari* astekarian... Denetan ere artetarik, tarteka. Lan pixka bat ematen dit horrek. Beti euskaraz ari naiz, salbu eta *Enbata*n, frantsesez eta euskaraz ari bainaiz aldizka. Lehen frantsesez ziren beti gure iritziak han.

Irakasle, politikari –hein batean–, idazle, guraso... Zernahi gisa, beti misiolari?

Kar, kar, kar. Euskararen eta Euskal Herriaren misiolari, bai. Xiberokan erraten didate: “Zük Xiberok esportatzen düzü!”. Ez zekiten sobera Zuberok alde zer egingen nuen. Orain ohartzan hasten dira. “Zük esportatzen düzü Xiberok!”, eta, “bai!”, ene ihar-despena. ■



euskerearen hazia zabaltzen



Gernika Zornotza Markina Durango Elorrio Eibar	97,5
Ondarroa	92,5
Bermeo Bakio	97,4
Elantxobe Aramaio	96,7
Lekeitio	98,1

VAN

Lurrikararen urteurrenean, drama bera

2011ko urriaren 23an 7,1eko lurrikara jasan zuen Kurdistango Van hiriak. Lehen astinduari ehun bat erreplika etorri zitzaizkion atzetik. Ondorioz, 60.000 lagun inguru etxerik gabe geratu ziren. Urtebete igarota berreraikitzea geldo doa, arazo berriak tarteko.

| PABLO GONZALEZ |

Argazkiak: Iñigo Azkona

GAUR EGUN Vanera doan bidaiariak Turkiako zatian dagoen Kurdistango eskualde horretako hiri tipikoa aurkituko du. Lehenengo begiratuan guztiz arrunta iritziko dio ikusten duenari; arreta jarritz gero, ordea, lurrikaren ondorioak agerian geratuko zaizkio. Lursailak hutsik bata bestearen ondoan, orain urtebete etxe bat, bulegoak edota denda bat egon ziren lekuan. Zutik dirauten eraikin asko ere hutsik daude; lurrikaren ondorioz erabiltezin geratu dira, eta zain daude, eraitsi edo demuntatzeko txanda noiz helduko. Etxebizitza bloke batzuetan hormetako arrakalek barruan gelditutako altzariak erakusten dituzte, bukatutako bizimoduaren testigu.

Iazko urriaren 23an, 13:41ean gertatu zen, Van hiriak bere historian sufritu duen lurrikararik gogorrena. Lehen astinduak, nagusienak, Richter eskalako 7,1eko indarrez jo zuen. Ehundik gora erreplika etorri ziren gero, garrantzitsuena azaroaren 9an jazo, 5,7 mailakoa. Turkiako Gobernuaren datu ofizialen arabera, 604 lagun hil ziren, baina tokiko agintarien ustez milatik gora izan ziren. Zaurituak ere milaka, 4.152, iturri ofizialen esanetan. 11.000 erai-kuntzak baino gehiagok kalteak jasan zituzten eta horietatik 6.000 inguru bizitzeko balio ez zutela geratu ziren. Guztira ia 60.000 lagunek galdu zuten etxea.

Aurten, herritarrek ahalegin itzela egin dute hiria bere onera ekartzeko, baina oztopo ugari aurkitu dituzte bidean. Alde batetik, Ankarako Gobernu bera, zeinak ez duen

eman beste eskualde batzuetan antzeko hondamendiak gertatu direnean emandako erantzuna. Bestetik, eskualde honetako egoera politiko zaila dugu eta horrek arazoak areagotzen dizkie tokiko agintariari.

Turkia, bere kokapen geografikoa dela-eta, lurrikara gunea da. Azken hogeita urteetan hamar lurrikara baino gehiago izan dira, oso gogorrak, milaka heriotza eragin dutenak. Okerrena 1999. urtean izan zen, Izmit hirian: 7,6 puntuko indarrez astindu zuen lekua eta 20.000 bat biktima utzi zituen. Turkiako agintariak orduan eta beste hainbat ezbeharren aurrean hartutako neurriak ikusita, ez da

harritzekoa kasu honetan izandako erantzun eskasa iraingarria iruditzea Vaneko herritarrei.

Kurdu izatea giltzarri

Van da kurdu biztanle gehien duen bigarren hiria Turkiako Estatuan. 370.000 biztanleko hiri honetan, gutxienez %75 kurduak dira. Ondorioz, kurdua da etxea galdu dutenen

gehiengoa ere. Turkiako Gobernuak kalte-tuentzako etxebizitzak eraikitzeke kanpaina jarria du martxan, beste eskualde batzuetan egin zuen gisan, baina ez guztiz berdin: etxebizitzak ematerako orduan, hortxe dago aldea. Lurrikararen ondorioz bizitokia galdu zutenei etxebizitza berriak saltzea izan da Gobernuaren hautua. Salneurriak apalena, beheko solairukoena, 50.000 turkiar lirakoa da (23.000 euro, gutxi gorabehera) eta garestiena 180.000 lirakoa (77.000 euro inguru). Batez besteko soldata 700 lirakoa den eskual-

Bizitokia galdu zutenei etxebizitza berriak saltzea izan da Gobernuaren hautua. Salneurriak apalena 50.000 turkiar lirakoa da, batez besteko soldata 700 lirakoa den eskualde honetan



Turkiako Gobernuak nazioarteko laguntza jaso du lurrikarak eragindako hondamendiari aurre egiteko, besteak beste hamar milioi dolarretik gora. Baina diru horren zati handi bat ez da Vanera heldu.

de honetan, prezio horiek neurritz kanpokoak dira guztiz. Gainera, Van eta inguruko herrietan langabezia tasa %40koa da.

Vanetik hurbil 30 bat herrixka daude, etxebizitza gisa funtzionatzen duten barrakoiez osatuta. Behin-behineko konponbide izan behar lukeena denboran luzatzen ari da. Barrakoietan jarraitu nahi ez duten familiek ez dute etxe berria ordaintzea beste aukerarik, edo epeka ordainduko dutela hitzematea, baina zaila dute hitza betetzen. Neguan tenperatura zero azpitik 20 gradura jaisten da Vanen, eta ohikoa da elurra egitea. Barrakoi horietan datorren negua igarotzea latza izan da, eta bereziki arriskutsua ahulენტzat, zahar eta umeentzat.

Vaneko jarduneko alkate Cahit Bozbay-ki adierazi digunez, “governuek euren herritarrrak lagundu ohi dituzte. Vanen ez da halako-

rik gertatzen, eskualde kurdua delako. Turkiako beste eskualde batzuetan, gertakari berdintsuen ondoren, herritarrek etxebizitzak eskuratu zituzten ezer ordaindu gabe. Ez zuten argindarrik, urik eta zergarik ordaindu urtebetez, batzuetan urte bi edo gehiagoz. Vango bizilagunek den-dena ordaintzen jarraitzen dute, nahiz eta zerbitzu asko oraindik eskuragarri ez egon. Turkiako Gobernuak ez du turkiar lira bakar bat ere erabili hiria

Van da biztanle kurdu gehien duen bigarren hiria Turkiako Estatuan. 370.000 biztanleko hiri honetan, gutxienez %75 kurduak dira



Vanetik hurbil 30 bat herrixka daude, etxebizitza gisa funtzionatzen duten barrakoez osatuta (goiko irudietan). Behin-behineko konponbide izan behar lukeena denboran luzatzen ari da. Eskuineko orrialdean, Vaneko argazki orokorra eta hiriko jarduneko alkate Cahit Bozbay. Bere hitzetan, Ankarako Gobernuaren laguntzarik ez dute jasotzen, Van eskualde kurdua delako: “Turkiako beste eskualde batzuetan, gertakari berdintsuen ondoren, herritarrek etxebizitzak eskuratu zituzten ezer ordaindu gabe”.

berreraikitze. Horren ordez egin duena zera izan da, alkatea kartzelan sartzea. Bera eta baita beste herri kurduetako 37 alkate eta sei parlamentari eta alderdiko kide ere. Guztira 8.000 dira gure alderdiko preso politikoak”.

Cahit Bozbay kurduen aldeko Bakea eta Demokrazia alderdiko kidea da. Legezko alderdia da, indarkeria gaitzesten du, baina hala ere errepresio gogorra pairatu behar du Ankarako agintariengandik. Turkiako kurduen beste alderdi politiko nagusia Kurdistango Langileen Alderdia da. Legez kanpo dago, baina 30 urtez turkiar tropen aurka borrokan dirau, herri kurduaren eskubideen alde. Alderdi horretako gudarien eta turkiar armadaren artean azkenaldian izandako liskarrak ere, Van hiriaren egoera gaiztotzen duten beste faktore bat dira. Urte honetan bertan, borrokek mila hildakotik gora utzi

dute, eta hori ikusita, nekazari herrietako biztanle askok etxetik hiritara egin du ihes. Vanen, kasurako, egoera lehenik ere latza izanik, bizilagun berri horiek baldintza okerragoetan bizi dira lurrikarak kaltetutakoak beraiek baino.

Errefuxiatu gehiago

Turkiako kurduez gain, Afganistan eta Irango errefuxiatuak ere iristen dira Vanera. Komunitate horiek gizarteko beherengo maila osatzen dute, Turkiako Gobernuak ez baitie errefuxiatu izaera aitortzen. Nazio Batuen Erakundeak bai, errefuxiatu gisa onartuak ditu, baina ez ditu aspaldion beste herrialde batzuetara ebakuatu. Turkiar agintarien egoskorkeria dela-eta, errefuxiatu estatusik gabe ezin da errefuxiatuei erreserbatutako etxebizitzarik eskuratu, eta euren kabuz lortu behar dute etxea errentan. Legezko lanik ezin dute egin, ordea, eta benetan gaitz zaie bizirauteko diru-iturririk aurkitzea. Doako osasun zerbitzurik ere ez dute, gainera.

Turkiako Gobernuak kanpamentu bat erakitzen ari da hiriaren kanpoaldean eta esan du

CAMPOS

1921-ETIK, CAMPOS-EK
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI
ESKER, HEGALUZERIK ONENA BILATZEN
DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.

Gure webgunean erosi: www.clubcampos.com

Neguan temperatura zero azpitik 20 gradura jaisten da Vanen, eta ohikoa da elurra egitea. Barrakoi horietan datorren negua igarotzea latza izango da, bereziki arriskutsua ahulentzat



errefuxiatuek bizi baldintza duinagoa izan dezaten egiten duela. Baina Cahit Bozbayren aburuz, “presondegi edo kontzentrazio esparrua baino ez da, errefuxiatuak kontrolpean edukitzeko eraikia”.

Arazo horiek guztiak bidelagun dituela, Van hiria aurtengo negurako prestatzen ari da. Turkiako Gobernuak nazioarteko laguntza jaso du lurrikarak eragindako hondamendiari aurre egiteko, bai material aldetik (kan-

pin-dendak, generadoreak, mantak, eta abar) baita dirutan ere (hamar miloi dolarretik gora). Diru horren zati handi bat, baina, ez da Vanera heldu, eta hiriak bere baliabide eskasekin egin behar die aurre berreraikuntza lanei eta errefuxiatuen dramari.

Gobernuak ez die lagunduko; aitzitik, traba jarriko die trabaren atzetik, zapalkuntza politikoa, polizia eta militarra baliatuz. ■



gaztezulo com
HI ETA HIRE MUNDUAK

**20€ BAKARRIK
URTE OSORAKO**

EGIN HARPIDETZA
943 457 250
harpidetza@gaztezulo.com

**PREZIO TXIKIA
OPARI HANDIA**

**GUK ZURI ERE
OPARI... aukeratu!**

**ESNE BELTZAREN
CD+DVDa**

**GATIBUREN
DISKO BERRIA**



DANI BLANCO

**Amaia
Lasa
Alegria**



IDAZLEA

Azawad

NIKARAGUAN igarotako egunetan ahaztu ezin ditudan ikasgai ugari barneratu nituen betiko. Horietako bat nire lagun estatubatuar batek esaten zidana: guztiz arriskutsua zela herri horrentzat mundu mailako albistegietan izan ondoren, bat-batean isiltasuna ezartzea lurralde horren inguruan. Erasotzaileak ez baitira inoiz geldirik egoten, isiluneak zerbait prestatzen ari direnaren adierazleak direla.

Ekainaren erdi aldera, aurtengo udaberriari udaren berotasunak iragartzen zituela, gure gorputzeko poroak emeki-emeki zabalduz eguzkiaren errainu indartsuen zain zeudenean, guk jantzi arinagoetan pentsatzen genuenean, Afrikar lurralde berri baten izena jakin genuen: Azawad.

Zoritxarrez, munduak zauri odoltsu bat gehiago ezagutuko du Magreb aldean. Mendebaldeko demokrata bakezaleak isil-isilik egon diren une honetan Azawaden aurkako erasoak prestatzen aritu dira, oraingo honetan afrikar buruzagien laguntzarekin gainera

Urrutiko herri berri bat? Ez! Gure etxetik gertu dagoen lurralde bat. Maliko ipar-mendebaldean kokatua hain zuzen, frantses kolonizatzaileek mapetatik desagerrarazi dutena, baina Tuareg herri nomadaren bihotzetik erauzi ezin izan ez dutena, hauek behin eta berriro aldarrikatu duten lurra.

Ohiko ohiturak jarraituz, mendebaldeko komunikabideek egia-erdiekin gezur biribilak kontatu zizkiguten. Azawad herriko independentzia aldarrikatzen zuten soldaduek burua galdu ondoren beraiei ez zegokien eskaera, proklama egiten ari balira bezala azalduz edo askotan egiten duten bezala islamista integristen mamua zabalduz. Hala ere, argi eta garbi esan dute, matxinatu diren Tuareg herriko soldaduek berek duten helburu bakarra beren lurraldea berreskuratzea dela.

Sahara munduko basamorturik handiena da. Bertan herri nomada ugari bizi izan

dira gizaldiz gizaldi, joan-etorrian ibili arren bakoitzak zuen bere kokalekua, ostatu naturala, hots, euren aberria. Hor daukagu Mendebaldeko Sahara, Hodeien Semeak izenaz ezagutuak diren talde ibiltariaren lur.

Den-dena ezin da gamelu gainean egin. Tuareg herria bukaerarik gabeko lurraldearen azkeneko ibiltariak, Mali, Niger Aljeriako iparraldean dute euren lurraldea. Hala ere, orain Mali aldekoan bakarririk aldarrikatzen dute independentzia.

Tuareg herri nomadak musulmanak dira, baina aspalditik gordetako legeak jarraitzen dituzte, musulmanen etorrera baino lege zaharragoak erabiltzen dituzte bizitza antolatzeko, ez dute koranean jatorria duen saharar legea jarraitzen.

Gizonak eta emakumeak ez daude berdinduta, baina andreak badu garrantzia gizarte mota horretan, ez da gizartetik kanpo bizi, modu eraginkorrean parte hartzen du herriaren antolamenduan, erabakigarriak diren komunitateko asanbladetakoa partaide da, espazio publiko nahiz pribatuaren beren iritziak adierazten dituzte.

Emakume ezkonduak dibortzioa –bikotearen banaketa– eska lezake, ez dute hijab edo zapia eraman behar burua estaltzeko. Duela urte batzuk saharar batek adierazten zigun beren arazoa konpontzen denean “munduak zauri bat gutxiago eta etxe bat gehiago izango duela”.

Zoritxarrez, munduak zauri odoltsu bat gehiago ezagutuko du Magreb aldean. Mendebaldeko demokrata bakezaleak isil-isilik egon diren une honetan Azawaden aurkako erasoak prestatzen aritu dira, oraingo honetan afrikar buruzagien laguntzarekin gainera.

Frantziak hamabost nazio partaide dituen Afrika Mendebaldeko Elkarte Ekonomikoa (CEDEAO) hertsatu zuen soldaduek bidaltzera iragan azaroan. Elkarte honek 3.600 soldadu Azawadera bidaltzea adostu dute apirilera.

Azawadeko askatasunerako mugimenduko partaideek udaberriari zioten: “Erasotzen baigaituzte infernua ezagutuko dute”.

Non ote zeruko bidea? ■





ezkontza eta adopzio homosexualak ;
azkenean eliza argi mintzo da...

EZ MARI TXUAK
ETA
MARI MUTIKOAK !

MUTIKO
MUTIKO
ETA
NESKATIKO
NESKATIKO

GUK JAKIN
BEHARRA DUGU
ZER ARI
GAREN
BORTXATZEN !



Jose Ignazio Ansorena

TXISTULARIA ♦



DANI BLANCO

Pin pin Serafin

SERAFIN BAROJA idazlea 1912an hil zen, Beran. Aurtent mendeurrena. Julio Caro Baroja bilobak honela idatzi zuen: *“Mi abuelo pasó por la vida como un pájaro, riendo, cantando y haciendo cosas raras”*. Pin, pin, txoria herri abestiaren txori txorrotxalariaren antzekoa.

Arrarorik zer egin zuen, bada, Serafinek? Ez aberastu izana daiteke nagusia. Meatzetako ingeniaria izanik, lanbide horren urrezko garaietan (milaka amarru prestatu ziren meatzeak Estatutik konpainia pribatuetara pasa zitezten eta ustiaketetan gehiago), ez zituen inoiz ere bere postuak erabili sakela betetzeko. Pío seme famatuak horrela dio berarengatik: *“Nunca tuvo sentido práctico; creía que eso de ganar dinero era una broma que no valía la pena”*.

Aldiz, euskarazko aldizkariak argitara emateko joera handia izan zuen. Eta bertan berak apaildutako kanpotar idazle handien euskal itzulpenak argitara eman. Madrilen bizi zelarik ere, *Bai, jauna, bai* izeneko argitaratu zuen ziudadean. Eginkizun hauek guztiak porrot ekonomiko bihurtu ziren noski.

Mundu zabalari beldurrik ez zion. Gaztetan Madrila joan zen ikastera eta etengabe ibili zen Espainian barrena, lanbideak horretaratuta. Ez zitzaion, haatik, inoiz biolontxelo agramatea ahaztu. Hura hartuta urtero itzultzen zen Donostiara abuztuko Ama Birjinaren bezperan Santa Mariako elizkizunetan jotzera. Apaizak eta erlijio kontuak gogoko ez bazituen ere.

Karlistak ere begi okerretik ikusten zituen:

Horra sei bertso Karlos zazpigarrenari, erderaz Niño Terso deitzen danari (...) pailazo ergel hori. Ez zaigu kirten txarra guri erori!

Baina hirugarren Karlistadaren kronika zehatz ederrak idatzi zituen marrazki deigarriez lagundurik, Madrilgo *El Tiempo* egunkarian.

Euskarazko txistek idazteko zaletasuna ere izan zuen: “Ama bat eta alaba bat ari ziran bazkaritan. Honek alferrik galtzen zituen ogi puska makina bat.

– Jantzaizkitzu ogi horiek –esan zion amak–. Bihar edo etzi bilatu zindezke pobre, eta ez dituzu orduan aurkituko orain uzten dituzun ogi puzka horiek.

– Ama –dio neskak– nik uste det gaizkiago aurkituko ditutala jaten badituz”.

Bizi zen artean atsegin eta aldarre oneko. Pío Caro Baroja biloba hizketan: *“(…) parece que era un hombre tan risueño, afable y bondadoso, que se le podía escuchar una larga tirada en vascuence sin entender nada, y sin experimentar sensaciones molestas”*.

Ehun urte hil zela, baina Serafin hurbileko adiskide sentitzen dut. Pin, pin, txoria. ■



DANI BLANCO



Edu Zelaieta



IDAZLEA

Eguraldiaren mapa

EGURALDIAREN MAPA hizpide bilakatu zen Lopezen Jaurlaritzaren eskutik: ETBn ikustera ohituak ginen eguraldiaren mapa moldatzea erabaki zuen gobernu sozialistak, (euskal) klimatologiari buruzko kontuak parametro demokratiko-unibertsalera ekarrita. Oraingo botere aldaketa dela medio, dagoeneko entzuna dugu eguraldiaren maparekiko kezka zenbaitzuen artean: EAJk lehengoratu ahal du telebista publikoko eguraldiaren mapa.

Euskalmetek ohiko iragarpena eman berri du zortzietako albistegian: “Termometroak 10 gradu azpitik errendituko dira eta barnealdean ez dira 6-7 gradutik gora

joango”. Informazioaren hurrenkerak ez ezik, (kostaldearen) elipsiak ere salatzen du nondik ematen den eguraldiaren iragarpena. Beraz, “eta barnealdean” zioen horretan, “eta periferian” esatea ere bazuen.

Eguraldiaren ageriko mapa ikuskizun dagoen honetan, (EAEko) euskaldun askoren ezkutuko mapak aldagaitz iraungo duelakoan nago. Jaurlaritzan PSOE nahiz EAJ egon, irriati-telebistako audientzia gehien biltzen duen Bilbo-Donostia ardatz zabalak nagusi degituko bide du. Bai eta eguraldiaren inguruko kontuetan ere. ■





Joxe Manuel Irigoien

♦ TTIPI-TTAPAKO KUDEATZAILEA

Nafarroan atzera goaz

KRISIAREN aitzaki erraza erabiliz, euskaraz lan egiten dugun hedabide bakanon egunerokoa oztopatzeko eta gure animoa mikazteko hainbat erabaki politiko hartu ditu UPNren gobernuak azken urteotan. Gure diru laguntzak erabat desagerraraztea izan da oraingoz azkena. Euskarabidea-Instituto Navarro del Vascuence-ren aurrekontuetan 2012tik aitzinera ez da gehiago diru laguntzarik izanen “Nafarroako hedabideetan euskararen erabilera sustatzeko”. Aurretik Topagunean biltzen garen hedabideok lau urte emanak genituen Euskarabidearekin harremanetan gaia onbidertzeko. Alferrik. Mahai gaineran jarritako proposamen eta argudio guztiek ez zuten deusetarako balio izan.

Baina UPNren gobernuak aipatzen duen krisiaren ondorioa ez da bera hedabide guztientzat. Iaz arte, gaztelaniaz ziharduten hiru telebista pribatuek (Canal 4, Canal 6 eta Popular Televisión) 3 milioi euro inguru jasotzen zuten hiruren artean. Gobernuak publizitate iragarkien eta bertzelako zerbitzu prestazioen bitartez jasotzen dutena kontatu gabe, aurren bertan, otsailaren 29an, Nafarroako Gobernuaren prentsa ohar batean jakinarazi zen Canal 6 eta Popular Televisión-i 2 milioi euro eman zaizkiela “lurraldeko ikus-entzunezko programazioa bermatzeko”. Hara, euskarazko komunikabideok sekula ez dugu “progra-

mazioa bermatzeko” diru laguntzarik izan. Dirua jaso dugun urteetan (240.000 euro urterik onenean 21 hedabideren artean banatzeko) “komunikabideetan euskararen erabilera sustatzeko” izan da, Euskararen Legeak hala aginduta, eta betiere erdarazko medioekin (*Diario de Navarra, Diario de Noticias...*) konpartituta. Kontzeptuen nondik norakoa hutsala dela iritziko dio norbaitek. Nik ez dut uste.

Uneotan euskarazko komunikabideok 50 lanpostu inguru ditugu sortuak, Navarra Televisión maiztean sortu aitzinetik Canal 6 eta Popular Televisión-ek zuten adina lanpostu. Ez dakit kate bakarrean daudenetik lanpostu kopuruari eutsi ote dioten. Argi dagoena da gainerakook bai murriztu behar izan dugula, halabeharrez, lanpostu kopurua eta baita ekoizpena ere. Ttipi-Ttapa Telebista 2009an itzali zen, Xaloe Telebista enplegu-erregulazioko espedientearekin dago 2011z geroztik, Esan-Erran eta Beleixe irriatiak ia erabat mututu dira aurren. Lanpostuak galtzen ari gara baina jakin badakigu gobernuaren aldetik bertze politika batekin, lanpostu horiek egonkortu eta handitzeko aukera izan badugula. Horretarako zera eskatzen dugu: diru laguntzak doitzeko eta duintzea batetik eta publizitate instituzionala sartzea bestetik. ■



XDZ

BERTSO BERRIAK

Uxue Alberdi

♦
Doinua: Habanera.



Arrainak eta bizikletak

Azaroak 25 eskailera ditu igo: “eraso gehiagorik ez!” aditu dugu berriro. Egunkarietan, zifrak: zenbat gorpu, zenbat tiro. Inon agertzen ez diren zenbat kate posesibo? Baina ez gara zenbaki edo biktima pasibol! Badugu antolatze adina sen ta motibo izan dezagun eraso bat jasaten den aldirio erantzun personal bat ta mila erantzun kolektibo.

Emakumeak gizona behar du, ez al da hala? arrainak bizikleta bat behar dezaken bezala. Elkartu eta gozatu dezakete, ta oxalal, libertatea delako itsaso oso zabala. Norberak bere burua errespetatu dezala, zainduz bidea ta ura, izedia ta kresala. Arrainak hegan ikasi baitezake berehala bizikletak igerian ere ikasi ahala.

Norberak daki ondoen zer den eraso, zer txantxa, norekin ta ze ordutan joan nahi duen etxerantza, non hasten den abusua, non amaitzen konfiantza, zer den menpekotasuna eta zer adiskidatza. Feminismoak indarrak metatzera garamatza, sare zulaezina da konplizeen aliantza. Ongi etorria zara, zatoz, izan segurantza: iraultza honen musikan egingo dugula dantza. ■

ERDIKO KAIERA

AITOR ARANA

«Egunerokotasunetik urruntzea interesatzen zait fikzioan»

Beheko suaren aldamenean prentsa gainbegiraten aurkitu dugu idazlea, Azpeitiako Loiola auzoko Kiruri jatetxean. *Sacamantecas nuen aita* (Txalaparta, 2012) liburuaren aitzakian ekin diogu solasari, baina laster egin dugu garai eta gai batetik bestera jauzi, ilusioak aletuz eta desilusioak biluztuz, idazle oparoaren konpainian.

| IRATXE ESNAOLA |

Argazkiak: Dani Blanco



zalea naiz eta mundu ilunetara sartu-irtenak egin ohi ditut. Zorionez literaturan gauzatzen ditut eta ez bizitzan, egunerokotasunetik urruntzea interesatzen baitzait fikzioan. Ikargarri aspertzen naiz eguneroko bizi-moduari loturik dauden eleberriekin. Gai guztiak ditut gustuko eta denetan barneratu nahi izaten dut, hasi haur literatura samurrenetik eta buka izatearen zoko ilunetan.

Zoko ilunetara jo bai, baina mezu moralik luzatu gabe.

Sacamantecas zoraturua zegoen, nire aburuz. Esan izan da, eduki zituen lau emaztetatik azken hirurek harreman sexualak edukitzea errefusatu izanak lerratu zuela erailketetara. Ez da egia. Pertsonak desorekatua izan behar du hark egin zituenak egiteko. Jende normalok lagunengana jotzen dugu, edo prostituziora, bestela.

Sacamantecas nobelan bortxatzaile baten larruan sartu zara. *Hiru istorio bortxazko* (Hiria, 2001) lanean ere bortxatzaileen motibazioei erantzuten saiatu zinen. Gaiak erakartzen zaitu?

Juan Diaz de Garayo *Sacamantecas*en bizitza eta nondik norakoak interesatzen zaizkit eta ez hainbeste indarkeriazko egintzak, nahiz bortxaketak saihestezinak diren, benetan gertatu ziren neurrian. Baina egiak egia zor. Nire baitan bada Aitor gaizto bat. Hilerrri eta hildako

Aitor Arana idazlea, itzultzailea, hizkuntzalaria eta hiztegitzailea da, poliglota eta hitzen maitalea izateaz gainera. Euskal Herrian idazletzatik bizi diren idazle profesional bakanetakoa da.

Fikzioa eta datu historikoak nahastu dituzu eleberrian, *Oscar eta Sebastian* (Hiria, 2011) biografia nobelatuan Oscar Wildekin egin zenuen bezala.

Oscar Wildez maitemindu egin nintzen, berandu, baina oso bizi. Hari buruzko biografia eta lan ugari irakurriz jabetu nintzen euskaraz ez geneukala egile irlandarraren libururik. Alde batetik, hutsunea bete nahi izan nuen. Ikastoletako lehen belaunaldikoak gare-

nok atzerriko lanak euskarara ekarri behar-
ren premiak baldintzatu izan gaitu, eta hil ere,
horrexekin hilko garela uste dudanez, euskaraz
jarri nuen Wilden lana eta bizitza. Bestalde,
makina batek pedantetzat edukiagatik dublin-
darra, jendearekiko tratu samurrean erakutsi
nahi nuen, izan bere semeekin, izan emaztea-
rekin zein maitaleekin.

Dorian Grayren egiazko erretratua (Txalaparta,
2011) egilearen gaytasuna ikusarazteko modu
bitxia izan zen.

The Picture of Dorian Gray, berez, eleberri gaya
da, egileak berak lehenengo bertsioetik bigar-
renera gay ukitu asko kendu zizkion arren.
Aurreneko bertsioan argi ikusten da Dorian
Gray eta Lord Henry Wotton filosofialaria
maitemindurik daudela, ez hala bigarrean,
dandysmoaren, hilezkortasunaren edo gazte-
tasunaren gaiak mantenduagatik. Irudikatu
nahi nuen nola idatziko zukeen eleberria Wil-
dek Victoriar gizartetik salbu, gaur egunean.
Baina pasa egin naiz liburuarekin. Pornogra-
fiaren alorrera eramán dut eta ez dut uste
Wildek hartaraino eramango zuenik. Hala
ere, ez nuen nire burua mugatu nahi izan.
Banekien Txalapartako Literotura bilduman
argitaratuko zela eta lasai jardun nintzen idaz-
ketan. Zorionez, mugarik eta zentsurarik



Pertsonak, gizarteak eta merkatu
kapitalistak bizirik mantentzen dituen
lana emakumeek egiten dute, ez
alderantziz.

#EgitekoAsko

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana



berdintasuna **
egiteko asko
www.berdintasuna.tv



gabe idatz dezaket Txalapartarako, asko zentsuratzen baita Euskal Herrian.

Zentsuratu? Ipuin erotiko zein pornografikoak dozenaka idatzi dituzu, ba.

Zentsuraren aurka askotan jardun izan naiz, ordea. Ipuin porno bilduma bazen esku artean nuena, berdin zuen argitaletxea ezker joerakoa zein eskuinekoa izan. *Ipuin Lizunak* (Hiria 2001) lanarekin halaxe gertatu zen. Pornoaren arazo, ez beste ezer. Ez zegoen generotik ia ezer gurean, Txomin Peillenen eta Jon Miranderen hainbat lan salbu, eta beste behin, hutsunea bete nahi nuen. Baina askok ez dute gaiarekin busti nahi. Zikindu egiten ote du ba, gaiak? Oraindik ere, Euskal Herriko argitaletxe asko fraide eta erlijiosoan eskuetan daude eta hori nabari da. Ezin da

Literatur genero gehienak landu ditu Aranek. Ez dira asko bere lumari ihes egitea lortu duten gaiak eta estiloak. 200 liburutik gorako bibliografia luzea du eta hazten dihardu zerrendak.

zenbait gauza erraz argitaratu. Niri, baiezkua eman eta gero, azken momentuan inprimategitik atera dizkidate ipuin batzuk lizunak omen zirelako! Eta ez orain dela asko. Duela zortzi urtez ari naiz. Oso jende ezkertiarak eta euskaltzaleak egin dio uko ipuin lizunak argitaratzeari.

Haranaga, Hiria argitaletxean duzun bilduma propioa, beste argitaletxeekin izandako desadostasunen karira sortu al zen?

Hain zuzen, Haranaga bilduma niretzat sortu zuten. *Ipuin Lizunak* argitaratzeko izan nituen zailtasunen ostean ezagutu nuen Luis Aranburu. Pako Aristik egunkari baterako egin zidan elkarrizketa batean kexatu egiten nintzen aurkitutako oztopoez, eta Aranburuk idatzia irakurri ostean, harriturik deitu zidan. Azkenik ipuinak argitaratu genituen eta oso ondo saldu ziren. Nire filosofia oinarritzak da gai honen gainean: interesa duenarentzat eskuragarri egon dadila. Haranagak poz handiak eman dizkit profesionalki eta nahi nuke inoiz ez desegitea. Editore batek egile bati bere bilduma propioa eskaintzea itzela da.

Itzela, desilusioak bizi izan ostean...

Asko idazten dut eta hainbat kritikarik eta editorek asko idazten duten idazleen artean sailkatu naute. Adibide bat jar-tzearren, Iñaki Aldekoak argitaratutako *Euskal literaturaren historia* (Erein, 2010) lanean ez naiz ageri, ezta asko sortzen duten beste hainbat idazle ere, ez bada aparte aipatutakoen aipamenean edo ikastetxetara joaten direnen artean, ez dut gogoan. Halakoek mina eragin dezakete. Leku gorenetan eta behi sakratuen limurtzaile direnen munduan ez dute ni

bezalakoa aintzat hartzen. Onartua daukat eta ez dut kontra joateko asmorik. Baina salmenta onei erreparatuz gero, sakratuen artean bai, baina gure artean ere ez gabilta makal. Gaztetatik ikusi nuen zirkua muntatua zegoela. Zirkuaren ondoan bizitzea erabaki nuen, gustatzen zitzaidana eginez eta kexaka jardun gabe.

Asko idazten dutenen taldetik Gay idazleen taldera pasatzen bazaitut, kexatuko zara?

Idazle gaya naiz, baina berdin-berdin naiz haur literaturako idazle. Genero bakarrera mugatzen nautenean hartzen dut desilusioa, eta hedabideekin hori gertatu izan zait. Orain urte batzuk Sautrelakoek elkarrizketatu nindutenean, elkarrizketa osoa haur literaturara bideratu zuten aurrez halakorik proposatu

gabe. Liburu zaharrak jarri zituzten nire lanaren eredu, harrigarria dena, idazle emankorra bainaiz. Nik bezainbeste gai jorratzen dituen idazlea elkarriketatzeko aukera edukita, eta galdera ausartak egiteko parada izanda, haur literaturara mugatu ziren. Denbora guztian gay literatura besterik ez aipatzeak berdin minduko ninduke. Saillkapena ez da, berez, txarra, baina hori baino gehiago naiz. Idazle polifazetikoa naiz.

Polifazetikotasunak lagundu dizu sari banaketak irabazterakoan. Beren alde agertu zara beti.

Hamazazpi urterekin erabaki nuen literaturara dedikatu eta profesionalizatu egingo nintzela, kosta ahala kosta, eta literatur lehiaketak lagun izan ditut ordutik. BBK Euskaltzaindia sariak kentzea erabaki okerra, negargarria izan zen erabat, onura ikaragarria egin baitute urtetan. Lehiaketa bat desagertzen den aldioro idazle berriak sortzeko aukera galtzen da eta idazle saiatuei literaturatik bizitzeko bidea ixten zaie. Ez dago asmorik, gainera, berrezartzeko. Kontrakoa. Berri txarrak, inondik ere, literaturarako. Mingostasuna eta desatseginak ez dira falta izan, baina idazten gozatu eta bertatik bizitzeko helbu-

«Mingostasuna eta desatseginak ez dira falta izan, baina idazten gozatu eta bertatik bizitzeko helburua izan eta lortu dut»

ria izan eta lortu dut. Ez dut ilusioa galdu hogeita hamar urte eta gero. Oso ondo bizi naiz idazletzatik, dirua irabazten dut eta ez gara asko hori esan dezakegunak. Berdin dit 200 liburutik gora kaleratu izana. Berri bat argitaratzen dudanean, haur jaioberria munduratu izan banu bezala da.

Orotarik idatzi behar, bai, idazletzatik bizitzeko. Nafarroako euskalkiak liburutara biltzen ari zara Hiria argitaletxeko Lingua Navarrorum bilduman. 24 liburu atera nahi dituzu Nafarroako euskalki galduei buruz.

Lanaren erdia baino gehiago egin dugu, baina diru-laguntzarik gabe gaude orain. Hasi, Nafarroako

Gobernuaren laguntzaz hasi ginen, axolagabe jokatuz bakarrik utzi gintuzten arte. Eusko Jaurlaritzak lagundu gintuen gero, baina hura ere hutsean geratu zen. Zorionez, ibarretako udal euskaltzaleak jabetu ziren interesaz. Bi ibarretan, behintzat, Izarbe Ibarrean eta Gesalatzeko udalean euskara teknikariek ikasliburua eskatu zidaten, behin hiztegia aterata nuenan. Askok ez dakite Nafarroan euskaraz normaltasunez hitz egin zela eta hori ikusaraztea ederra da. Beharbada, aurrerago, diru


elkar libbuk
euskaraz dakien eReaderra elkar-en eskutik

elkarlibbuk.elkar.com
www.elkar.com

IRAKURTZEN...
Mareas
Toti Martínez de Lezea
Valkurritako azkenak Gaur. Ordua: 17:33 h

Irakurritako azkenak

Bilbao-New York-Bilbao Gaur. 17:33 h	Amaren Eskuak Gaur. 17:33 h	Patala blues Gaur. 17:32 h
Obabakoak Gaur. 10:11 h	Yo que fui rey de Navarra Atzo. 17:10 h	La abadesa, María, la... Atzo. 16:52 h



laguntzak sendotzean berrekingo diogu lanari. Pena da, hainbat ibar falta dira eta. Irurtzun, adibide batera, egin gabe dago, nahiz euskarazko materiala baden bertan. Hala ere, lan hori egiten dabilen bakarra ez naiz ni. Hor daude Koldo Zuazo, Koldo Artola, Iñaki Camino eta beste.

Nola jarraitzen zaio euskalki galduari arrastoa?

Kasu askotan erlijioari esker lortzen da materiala. XVIII. eta XIX. mendeetan, ibarrok guztiz euskaldunak zirenean, are neska-mutilek gaztelaraz ez zekitenean, apaizek sermoia eta dotrina euskaraz ematen zituzten, bertako euskaraz, normalean. Astete-ren dotrina Espainia osoan hedatua zegoen eta leku bakoitzean bertako hizkuntzara itzultzen zuten. Zorionez euskalki askotara ekarri zen Nafarroan. Tamalez, erlijio materiala murrizta da. Dotrina batetik bostehun hitz inguru atera daitezke, eta gehienak, erlijioaren jirako-

“Saillapena ez da, berez, txarra, baina hori baino gehiago naiz. Idazle polifazetikoa naiz”.

ak. Horrez gain, Bonapartek XIX. mendean egin zuen bilketa lana eta toponimia ditugu material nagusi.

Herrietako udalek euskalkiak berreskuratu nahi al dituzte?

Koldo Zuazok esana du eta nik berresten dut: asmoa ez da euskalkiak hizketarako berreskuratzea. Gutxiengo batek jakin nahi du nolakoa zen antzinako euskara, eta gramatikak eta hiztegiak egin behar dira horretarako. Zaraitzun eta Garesen galdutako euskalkien klaseak ere eman genituen interesatuentzat, baina ezer ikastekotan, Euskara Batua ikasteko esaten diet beti.

Dokumentu zaharretatik egin dezagun jauzi berrietara. Nola ikusten duzu euskal gazteen literatur sorkuntza?

Ez dut asko jarraitzen. Azken urteetan, biografiei oso loturik nabilenez, ez dut eleberri eta ipuin asko irakurtzeko betarik hartu. Dakizkidan bost hizkuntzak mantendu nahiak, denbora zatirik handiena itzulpengintzari ematera narama, gainera. Baina etorriko da buelta. Ziklikoa da irakurketena. Adinarekin, gainera, berrirakurtzen hasten gara.

Diziplina anitzeko hainbat sortzaile euskal sorkuntza babesteko estrategiak adostu nahian dabil. Diagnosian diote instituzioek ez dutela behar beste zaintzen euskal kultura.

Laguntza instituzionalena beti izan da horrela, eta nago, beti izango dela. Krisiarekin lehenik murriztu dutena kultura izan da, garrantzirik gabeko gauza baita askorentzat. Joera historikoa da, bai gurean eta bai Europan. Nire esperientziagatik dakit erakundeek erabaki bat hartzen dutenean bost axola zaie-la zer galdu edo galarazi duten. Ez dute inoiz atzera egingo, ezta talde presiopean ere. Askotan ikusi dut gauza bera, frustrazioz. Gauzak ondo doazenean, ondo, eta bestela, hor konpon.

Izango duzu liburu berriren bat esku artean. Bota primizia!

Mariasun Landaren *Txan fantasma*, Iñaki Zubeldiaren *Euskaldun bat Marten* eta nire *Urtegi misteriotsua* lanak esperantoz aterako ditugu udaberrian, Haranaga bilduman.

Esperantora heldu da euskara!

Ez da lehenengo aldia. Jose Mari Sarasuak Jon Miranderen *Haur besoetako* itzuli zuen 2002an eta nik Bernardo Atxagaren *Bebi euskaldun baten memoriak*. Euskal Herrian zer egiten dugun ezagutzeko modua da, neurri batean. ■




doku sarea

Hilero dokumental bat proiektatuko da Euskal Herriko taberna, gaztetxe, kultur etxe eta euskaltegietan, guztiak euskaraz edo euskarazko azpidatziekin.

**Anima zaitetz
zure herrian
antolatzerara!**

HILABETE HONETAN



MORIR DE DIA

Transiziotik gaur egun arteko Kataluniako historia bere alde izkutu batetik begiratuta: heroina. Kontrakultura eta giro politikoko pertsonai garrantzitsuenetarikoen agerpenak Pau Malvido, Mercè Pastor, Pepe Sales edota Juanjo Voltes adikzioak markaturik dagoen bizi baten erronkaz mintzo zaigu, Francoren heriotzarekin hasten dena eta gaur egun arte heltzen dena.

- > Laia Manresa, Sergi Díes
- > Estudi Playtime, Únicamente Severo
- > 2010


HARREMANETARAKO

DATOZEN EMANALDIAK

BRAD. BESTE GAU
BAT BARRIKADETAN



ESKUTUKO ZORRA



EGUZKI BIDEOAK
948 211 537 / 608 928 631
dokusarea@eguzkibideoak.info
www.eguzkibideoak.info



Esku hori!
Askoren artean
Txalaparta, 2012.

Eskuz esku ibiliko delakoan

TXALAPARTA argialetxearen eta Basauriko Euskarabila ekartearen meritua da honoko ipuin bilduma hau, *Esku hori!*. Ipuin erotikoen lehiaketa du oinarrian, aurretik plazaratutako *Bero bezeak* eta *Basagurina* bildumek bezala.

Esku hori! aurkeztu zen egunean jakinarazi zuen, hain zuzen, Euskarabilako kide Karmele Albusuk, hamazazpigarren lehiaketaren ostean ez dela besterik izango, ez bederen epe motzean, “baina ez goaz penaturik” gaineratu zuen, “asebeteta baik, gure ekarpentxoia egin dugulakoan”.

Gazte askorentzat idazketan trebatzeko, euren burua neurtzeko eta ezagutzera emateko aukera izan da lehiaketa.

Itziar Abad, Alaitz Andreu, Estitxu Arozena, Karmele Arrieta, Eneritz Dueso, Iratxe Esnaola, Imanol Epelde, Alvaro Iribarren, Miren Juaristi, Dani Martiarena, Aitor Monge, Txema Perez, Alvaro Rabelli, Danele Sarriugarte eta Josu Unzueta dira ipuinen egileak. Hitzazurrean, Edorta Jimenez. ■



Henduen literatura

Beste norbaiten zapatak.
Garazi Kamio
Elkar, 2012.



«Dibortzioa? Non saltzen dute? Dena itxita izango duzu honezkero»

EGUNEROKO GAUZAK dira Kamiok kontatu dizkigunak, denok bizi ditugunak, egunero ikusten ditugunak, baina Maslowen teoria aplikatuz maila bat hartuko dutenak. “Gizabanakoak bere beharrezinak ase behar ditu. Behin azpiko maila asetzen duenean, maila bat igoko da eta bertako beharrak asetzera jo”. Eta horrela ipuinez ipuin bizitzak egiten duen gisara mailak igotzen ditu Garazik, baina igotze horretan absurdoa, injustizia, eta bizitzaren arrakalak ikusten dira metaforaz, ironiaz, patetismoaren semantikaz kargatuta.

Generoak presentzia handia du, *Nessum dorma* eta *Panenka* ipuinak horren adibide argiak dira. Batak, lehengo emakume tipoari begiratzen dio eta besteak, oraingoari eta biak ere gatazkan ikusarazi ditu. Lehenak kontatzen digu, *Tirandot* operarekin nola limurtu zuen neskatan Juanek Maria “ezkondu eta hogeit urtera, Juanek esan zion sekula ez zela operan izan. Dena gezurra, Gregory Pecken iruzurra”. Laurogei urteren bueltan, neskametz oso luze baten ostean, senarra Alzheimerduna eta emazte otsaina ohetik erorita ikusiko ditugu: batek memoria hautsia eta besteak aldaka. Emakumearena da ahotsa eta gogoeta, gezurren samina eta joandako bizitzaren etsia. Eta Maria ausartzen da azkenean. “Dibortzioa eskatuko nuke; orduan jakingo zenuke zer den bakarrik egotea” eta Juanek: “Dibortzioa? Non saltzen dute? Dena itxita izango duzu honezkero”. Esaldi horregatik bakar-bakarrik merezi zuen liburuak. Gaixotasunaren gainetik dago gizona, ironia, traizioa, hitz batean, menpekotasun bizitzaren metafora.

Panenka kontatzen digu belaunaldi berriekin, aitona-amonek nola hausten dituzten egongelan jolasean aritzeko debekuak, eta debekuaren arrazoiak. Bohemiako kristalezko ontziak haustearen beldurrez debeku guztiak aktibatuak zeudeneko iraganaz mintzo zaigu ama samindua: alabak bere baloiarekin egunkari paperean bilduta hain aise zakarretara botatzen duen iraganaz eta orainaz. Istorio honek absurdoarekin jolasten du, izan ere, futbola gorroto duen protagonistari alaba futbol zale porrokatua atera zaio, Betis zalea gainera. Rolan inguruko hausnarra, aitaren futbol zaletasuna eta senarraren isiltasuna. Denetarik pentsatzen du protagonistak, baita Betisen alkandorak libiaz hondatzea ere. “Futbola beste zaletasunen parekoa da, ezin da nolahala ezabatu. Eta elastikoa libiaz zikintzen baduzu, Real Madrileko jarraitzaile bihurtuko zaigu”. “Senarrak, lasaitasun osoarekin, atearen erdi-erditik sartu dizu gola”.

Bigarren, hirugarren eta lehen pertsonen ematen duten distantzia diferentzetatik modu linealean sartu dizkigu golak Kamiok. Oraindik, halere, iruditzen zait narratzailea ez dela erabat zoritu eta narrazioak gehiago tenkatu behar duela, baina bigarreanean seguru. Generoarekin bukatzeko, azken ipuina proposatzen dizuet generoa bilatzeko ariketa gisa. On dagoizuela. ■

Gema Lasarte





Hegoko lautadaren ertzetik.
Balerdi Balerdi

Musikorta, 2012.
Iraupena: 37'10".
CDak 10 euro.

Plazer txiki bat

BALERDI BALERDI nire talde kutunetako bat da. 1990. urtean sortu zen, eta aire freskoa ekarri zuten Euskal Herriko musikaren mundura. Beren melodia politak, mod eta new wave aireak, rock-and-roll kutsuko doinuak, umorea, ironia, etorria, eta haien *feelinga* maite nituen, eta oso gustura entzuten ditut oraindik garai hartan kaleratu zituzten lanak: *Balerdi Balerdi* (1991) hamar hazbeteko binilozko diskoa, eta *Ez gara galdu* (1994) zein *Hobe bebin gorri ezenez beti hori* (1997) CDak.

Balerdi Balerdiren zaleok poztu ginen taldeko jatorrizko hiru kide –Toño Muro (ahotsa eta gitarra), Marino Goñi (baxua) eta Sergio Ibarrola Zara (bateria)– 2009an zuzeneko emanaldiak egin hasi zirenean, Balerdi Erdi izenarekin. Hainbat saio eman ostean, Goñik taldea utzi zuen. Ondoren, Karlos Ortiz baxu-jotzailea taldean jotzen hasi zen.

Gehiago poztu ginen disko berri bat kaleratu behar zutela jakin genuenean, eta zer esanik ez, diskoa eskuratu eta entzuten hasi garenean. Balerdi Balerdiren esentzia, mamia sumatzen dugulako kantuetan: pop kutsuko giro politak, rock-and-rola, bizitzeko gogo, askatasunaren aldeko aldarria, kritika eta ironia, gatza eta piperra...

Balerdi Balerdiren betiko melodia ederrak (*Linboa*, *Egiozu kasu*, *Ez dut jakin nahi*), rock doinuak (*Gduka*, *Nor da beste aldean?*, *Iruñean rokanrolik ez*), giro leun eta hunkigarriak (*Bertan goxo*, *Hegoak (In Dylan imitatione)*) eta ska kutsuko erritmoak (*Ez kabapean*) entzuten ahal dira *Hegoko lautadaren ertzetik* diskoan.

Azken hiru urteetan sortu dituzten kantuak eta moldatu dituzten kantu zahar batzuk dira. “Ez genuen linboan gal zitezen nahi, eta, gainera, gure zale maitagarri eta eskas horiek merezi dute plazer txiki bat”, Zararen hitzetan. Zaleok estimatu eta eskertzen dugu plazer hori: Balerdi Balerdiren kantu berriak entzunez gozatzea.

Gitarra, baxua eta bateriaz osaturiko talde batenzat konposatutako kantuak dira, baina beste hainbat musika tresna ere erabili dituzte grabazio saioetan:



KATAKUOSTATUA.BLOGSPOT.COM.ES

harmonika, teklatuak eta perkusioak, besteak beste.

Batiz gitarra jotzaileak (Tapia eta Leturia Band, Fito y los Fitipaldis, Gatibu) hainbat solo egin ditu, eta Blanka Izkuek (Balerdi Balerdiko kide ohia) teklatuak jo ditu. Xabi Navarro *Jota* grabazioaz eta nahasketez arduratu da, eta Exprai izan da diseinua- ren eta marrazkien egilea.

Pello Lizarralde idazleak *Linboan* eta *Hegoak (In Dylan imitatione)* kantuen hitzak idatzi dizkie, eta Toño Muro izan da gainerako kantuen musiken eta hitzen egilea. Lizarraldek berak lagundu dio Murori hitzak orrazten, eta kantuen moldaketak taldekideen artean egin dituzte.

Disko berria oso gustura entzuten dut, baina pena da ekoizpen hobe egin ez izana. Kantuak Balerdi Balerdirenak dira erabat, doinuak garbi entzuten dira, baina indar, kolore eta distira pixka bat gehiago faltan sumatzen dut.

Urteak pasatu dira, baina Balerdi Balerdik ez du *feelinga* galdu, taldekideek bihurri izaten jarraitzen dute, eta ederki pasatzen dutela nabari da beren kantuak entzunez gero. Guk ere bai, Balerdi Balerdiren kantu berri bat entzutea plazer txiki bat baita. ■

Joxi Ubeda



Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
1					■										
2								■							
3				■											
4							■								
5			■							■					
6						■									
7	■								■						
8					■										



@FRAYLE-CC BY

Sudokuak

Erraza

6		2			7	3	5	8
			8	4				9
8	9				2		1	
2			3			7	6	
		9				2		
	3	7			6			1
	7		1				4	2
4				7	9			
9	2	8	5			1		6

Zaila

9			3		5		2	
		6				3		
2	8				1			9
	9					4		
	2		7		8		3	
		4					6	
4			5				1	3
		9				2		
	1		6		7			4

Ezker-eskuin:

1. Jardun. Hotsik edo soinurik egiten ez duena. 2. Zatiketa. Zaren hori (alde-rantziz). 3. Aho-gaixotasun, aholagar. Bide-zidorra. 4. Bost sentimenetako bat. Arnas ezak hil. 5. Rutenioaren sinbolo kimikoa. Urtearen seigarren hila. Joera. 6. Noraino atzizkia. Harrapatzen dituen animalietatik bizi dena. 7. Zureak. Ikaspen. 8. Kalabaza. Pairarazi, irozotzera behartu.

Goitik behera:

1. Argazkian. 2. Ardi esnea biltzeko zurezko ontzia. 3. Txerritegi. Zurtoin luzeak eta malguak dituen landare, oso toki hezetan hazten dena. 4. Naizen hau. Su-etena. 5. Zezen gazte. 6. Abizenaren aurrean doana. Omen. 7. Izaera on. Idor, siku. 8. Egoki. 9. Lurrari dagokiona. 10. Ebakitako gariak egiten den sorta. ... de Janeiro, Brasilgo hiria. 11. Alkandoraren gainean janzten den jantzia. 12. Ipparalde. 13. Zerga. 14. Hegal, izkina. 15. Oinazea adierazteko.

Kike Amonarrizen umorea

Amona eta jostailua



80 urte inguruko amona herriko sex-shopera sartu da. Makuluan bermatuta dabil eta pauso labur eta baldarrez hurbildu da salma-haira. Poltsa mahai gainean utzi eta ahots dardartiz esan dio saltzaileari:

– Kaaaaiixxxxoooo!

Baa aal duuzzzue kooontsoooladoreerriik?

Saltzaileak, harri-turirik:

– Bai, noski! Mode-lo bereziren bat nahi?

Eredu batzuk erakutsiko dizkizut nahi baldin baduzu...

Eta amonak:

– Taaa baaa aal diituuzzzu haamaar fuuuntziio dii-tuuennn aarrrauuzt foorrmaaako aarrrooo-oxaaa kooooloooreeko-oo iinaaalaanbriikoo-oaakk?

– Bai, noski! –saltzaileak.

– Taaaa noolaaa geeldiitzeen diireeen baa aal dakizuuuu?



Soluzioak

9	2	8	5	3	4	1	7	6
4	1	6	2	7	9	5	8	3
3	7	5	1	6	8	9	4	2
5	3	7	4	2	6	8	9	1
1	6	9	7	8	5	2	3	4
2	8	4	3	9	1	7	6	5
7	5	1	8	4	3	6	2	9
6	4	2	9	1	7	3	5	8

Erraza

5	1	2	6	3	7	8	9	4
7	3	9	8	1	4	2	5	6
4	6	8	5	9	2	7	1	3
8	7	4	6	5	3	1	6	2
6	2	1	7	4	8	9	3	5
3	9	5	1	2	6	4	8	7
2	8	3	4	6	1	5	7	9
1	5	6	2	7	9	3	4	8
9	4	7	3	8	5	6	2	1

Zaila

Ezker-eskuin: 1. Ekin, Istita, 2. Zaitze, Uz, 3. Kio, Xendra, 4. Ukimen, Ito, 5. Ru, Ekana, Jitea, Irozarazi. **Goitik behera:** 1. Ezkurral, 2. Kaitua, 3. Itoi, Ith, 4. Ni, Mena, 5. Txekor, 6. Izena, E, 7. Sen, Ihar, 8. Dinako, 9. Lurtar, 10. Azao, Rio, 11. Jaka, 12. Ipar, 13. Tasa, 14. Ertz, 15. Aiel.



Sortuko dira besteak agerkaria Gasteizko Principal Antzokian izango da abenduaren 15ean, eta Donostiako Kursalean abenduaren 22an.

Besteak

BILBOKO Arriaga antzokira itzuli naiz. Areto honek ez du bereziki euskarazko emankizunik ugari eskaintzen, ez bada formato txikian –badakizue, euskaldunok merkatu txikia gara–, eta Gabonak hor daudela, *La Bella y la Bestia* ikuskizun musikalaren kartelak ikusi ahal dira, antzokiaren kanpoaldean. Baina dirudienez, euskarazko ikuskizunak errentagarriak ere izan litezke batzuetan. Euskaldunok badakigu tamaina handikorik ere antolatzen, eta hara, *Sortuko dira Besteak*-k, ildo horri jarraitzen dio. Sarrerak agortu ez baziren ere, Arriaga Antzokia leporaino beteta zegoen, “ez dago eserlekurik patioan” aditu nion lehiatilako neskari.

Adin guztietako jendea bildu zen gure kantari klasikoei (Xabier Lete, Mikel Laboa, Imanol, Benito Lertxundi...) egindako omenaldian, baina adin ertaineko jendea zen nagusi, frankismo osteko urte emankorretan, gazte eta nerabe zirenak, abestiak haien gogoan iltzatuta dituztenak.

Ekitaldi honen jatorria, *Xabier Lete Gogoan* bira arrakastatsuan dago. Bira hori Euskal Herri osoan barrena egin zen 2011n, zendu berri zen poeta eta kantariari gorazarre egin asmoz.

Bigarren aldiz, Eñaut Elorrieta (Ken 7), Alex Sardui (Gatibu), Mikel Urdangarin, Petti, Arantza Irazusta eta Pier Paul Berzaitz aritu ziren oholta gainean abesten. Bernardo Atxagak eta Amets Arzallusek idatzitako testuak izan zituzten lagungarri, ekitaldi horretarako espresuki sortutakoak.

Joxan Goikoetxea piano eta soinu-joleak zuzendu zituen musikariak.

Euskal Herriko kantari klasikoen abestiei beste arnas bat ematea genuke talde honen asmoetako bat. Beste bat, nazioarteko zenbait ahots handiren doinuak euskarara moldatzea. Modu honetan, *Ne me quitte pas* eta *Amsterdam* (Jacques Brel), *So long Marianne* (Leonard Cohen), *The old ways* (Loreena McKennitt), *Tu gitana* (José Afonso), *Yo pisaré las calles nuevamente* (Pablo Milanés) edo *L'estaca* (Lluís Llach) kanten euskarazko bertsioak entzun genituen.

Abesti rockeroagoak ere izan genuen entzungai. Esate baterako, Ruper Ordorikarenak edo Rolling Stonesen abesti handien bertsioak.

Xabier Leteren, *Izarren hantxa* kantutik hartu dute emanaldirako goiburua: *Sortuko dira besteak*. Hori xe egin dute sei kantariak, Oiarzungo olerkari eta abeslariak

hurrengo belaunaldiei egindako gonbidapena onetsi, aurretik izan ziren musikari eta sortzaileen lanari jarraitzeko nahi horri bide eman. Gustura aritu ziren kantariak, antzianako abestiak joz, askotan buruz, akorde eta hitzetan, hortik edan baitute euren hastapenetan, egungo euskal musikari askok.

Bernardo Atxagak eta Amets Arzallusek testu bana irakurri zuten. Hendaiko bertsolariak mugan jaio eta hilko ote den galdetzen zuen. Atxagak berriz, *Oh! My Darling Clementine* AEBetako folk abestia eta Jon Mirandek abesti horren gainean egindako *Ene Kattalin* bertsioa izan zituen mintzagai.

Xabier Leteren beste abesti batzuen artean, *Euskal Herri nerea*, *Altzateko jann* eta *Lore bat zauri bat* entzun genituen ikuskizun honetan, eta Leterekin batera, Laboa, Lertxundi eta Imanol. Baina baita Bitoriano Gandiaga, Lauaxeta, Gabriel Aresti edota Sarrionaindiaren testu musikatuak ere, 30 abestiz osatutako erreperatorioan. Alderik berri-tzaileena, beste herrialde batzuetako kantu aski ezagunak euskarara moldatu izana. ■

Myriam Garzia



Veneziako urak kontrolatzeko proiektua



1966. URTEAN Veneziako uren altuera inoizko handiena izan zen, 1,94 metro izatera ailegatu baitzen. Orduz geroztik uren altuera kezka iturria izan da bai veneziarrentzat bai ikerlarientzat. Kezka horrek akuilatuta, orain urte batzuk Italiako Gobernuak, Udalak eta probintziako Gobernuak Moises proiektua jarri zuten abian: 2014rako 78 ate erraldoi eraikiko dituzte Veneziako aintziraren eta itsasoaren artean. Horretarako

5.500 milioi euro inbertituko direla estimatzen da.

Uraren altuerak 1,10 metro gainditzen duenean, atek itsas hondotik igoko dira, lakua eta itsasoa bereiziz. 2003an hasi ziren porlan puska tzarrak itsasora botatzen, horien gainean ate erraldoiak kokatzeko. Une honetan 200 metroko luzeran ikus daiteke itsasoan harriek osatzen duten lerro grisa. Ateen bidez, hiru metro arteko ur-altuerak babestuko dira; oraingoz, estimatzen da urtean hiru edo bost aldiz aktibatuko direla.

Datozen urteetan berotegi-efektuak itsas mailaren hazkuntza eragingo duenez, Moises proiektuaren beharra ez da ezbaian jartzen, nahiz eta Veneziako itsasoaren ekosistema ere eraldatuko duen. ■



Balea urdina, dantzarien gisa

2010EKO UDAN balea urdinek elikatzeko erabiltzen duten estrategiari so egin zitzaion Kaliforniako itsas ertzean, eta orain gutxi argitara eman da ikerketaren emaitza, Biology Letters webgunean.

25 eta 35 metro bitarteko luzera eta 100 eta 190 tona arteko pisua duten animalia erraldoi horiek



dantzari arinak bailiran higitzen dira krilla jan behar dutenean. Lehenbizi itsas gainazaletik 180° biratuz krillaren azpian jartzen dira, sabela gorantz dutela, eta ondoren, ahoa irekita dutela, beste 180° biratu eta ehunka tona ur eta krill irensten dute.

Mugimendu horiek ohikoak omen dira beste balea espezieetan, baina ez hainbesteko biraketarekin. Normalki, 90° baino ez dute biratzen, edo 150° gehienez. ■



Izotzak estalitako gainazala handituz doa Antartikan

Jakina da Arktikoan, uda garaian, izotz-geruza gero eta txikiagoa dela. Berotegi-efektuaren eragin bistakoa omen da gertaera hori. Baina Antartikan aurkakoa gertatzen da, hau da, gero eta izotz-geruza zabalagoa sortzen ari da.

ttiki.com/45152
(Gaztelaniaz)

Merkurion ura eta konposatu organikoak izan daitezke

Merkurio Eguzkitik hurbilen dagoen planeta da. Baina hango ipar poloaren inguruan badaude eguzkiak jotzen ez duen eremuak, eta horietan dauden kraterretan ura eta, agian, konposatu organikoak egon daitezke, radar bidezko behaketetatik ondorioztatu daitekeenez.

ttiki.com/45153
(Gaztelaniaz)

Garunen arteko konexioa musikari bikoteetan

Berlingo Max Planck Institutuko ikerlarien arabera, konexioa sortzen da elkarrekin jotzen ari diren musikari biren garunen artean, nota desberdinak jo arren. Koordinazio horri esker, garun batek badaki besteak zer egin behar duen hurrengo unean.

ttiki.com/45154
(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Ustel gozoa

FRUITUEN SASOIAN haiei koskaka ari naiz. Joanak dira gehienak, ez denak ordea. Azken sagar eta udare gogorak, kiwiak, basakarak, mizpirak... Azkenekoak eskura dira. Eskura... ondo eskura ganbara zabalean txukun-txukun zabaldua jasotako golde edo egon sagarrak, hurrak, intxaurrak eta kiwiak. Horiei ahal den neurrian gogor, gordin eta heldugabe eustea komeni, gero pixkanaka-pixkanaka berez umotu edo geuk helarazi ahala jateko; udazkena bukatu gabe negua sartu da, eta noiz amaituko den ez jakin...

Ahalik eta gozoen jartzea komeni denetik ere bada. Izoztu ondoren bildutako sagarrekin eta mahatsarekin egindako ardoak boladan daude. Izozteak fruitua urgabetu eta lehorteaz gain haren azukreak aldatzen ditu, batzuen ustez hobera. Antzeko ustea dut neuk ere patxaranarekin: basakara izotzak erre badu askoz ere gozoagoa da, eta kokkor horretatik sueto duen patxarana miretsiko du harritutako ahosabaiak. Izotzak pasatako fruituak lehenbailehen erabili behar dira, aitaren batean ustelduko dira eta.

Beste batzuk usteltzea komeni. Zeinek ez du mizpira ustela gustuko? Sekula dastatu ez duenak! Hau irakurtzen duzuen ia-ia denek... Aukera izanez gero, eskuratu mizpirak, itsu-itsu. Etxean



toki lehor eta hotz batean zabaldua jarri, eta usteldu ahala jan. Ahosabaiari zenbaitzuk ahozerua zergatik deitzen dioten ulertuko duzu.

Ahozeruaren gaineko garunarentzat mizpiraren kulturarenak beste baterako utzi eta zero horri berari helduko diot. Mizpira jatenarenari, alegia. Tori lehena: mizpira konfitura. Theodore Francis Garrettek 1890ean argitaratu zuen liburu ospetsu batean jasotako Erdi Aroko errezetan mizpira-gazta deitzen dio. Lurrezko ontzi batean mizpirak urez estali eta su eztian egosi, ura lurrindu eta ore fin bat egin arte. Iragazi.

Ore libranko, gosaritako katilu eta erdi azukre larri eta koilaratxo erdi bat Jamaikako piperbeltza erantsi eta sutan jarri, mantso-mantso etengabe nahasi. Nahikoa loditzen denean moldean jarri. Bigarrena: mizpiraren jelea, mahaian arkumea eta ehiza laguntzeko aproposa. Jele hori izugarria da, hasieran irasagar ore dirudienak gero egur, lur eta orbel kutsua du, horrela esanda nazkagarria badirudi ere benetan ahotik ezin utzizkoa da. Edozein eratarere mizpira beti sagar edo mahats ardoarekin hartu... ■



Hondarribia

Liburu azoka abenduaren 13tik 16ra, San Pedron


EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Amen salbatzaileari jaramonik ez

ISTVAN BENEDEK



Ignaz Semmelweis (1818-1865) obstetra hungariarrak gaur egun oinarritzakoa, naturala eta logikoa iruditzen zaigun neurria proposatu zuen emakume haurdunak aztertzeko: eskuak garbitzea. Baina Semmelweisen garaian ez zekiten infekzioak mikrobioek sortzen dituztela, eta medikuntza komunitateak bizkarra eman zion.

VIENA, 1846. Ignaz Semmelweis mediku hungariarra, obstetrizian doktoregoa lortu ondoren, austriar hiriburuko Ospitale Orokorrean hasi zen lanean, eta handik gutxira, amen hilkortasun tasa izugarriaz kezkatuta, zera idatzi zion Markusovsky lagunari: “Ezin du lorik egin. Apaiza azaldu baino lehen entzuten den txilina nire arimaren bakean sartu da betiko. Egunero ezintasunez ikusten ditudan izugarrikeriek ez didate bizitzen uzten. Ezin dut honela jarraitu, dena iluna denean, kategorikoa den bakarra hildakoen kopurua denean”.

Erditze ondoko sepsiak edo sukarrak jota hildako amen kopurua ikaragarria zen benetan. Ospitaleak bi amatasun gela zituen: lehenengoan heriotza tasa oso handia zen, %15etik gorakoa; bigarreneko datuak, aldiz, ohikoagoak ziren: %4 ingurukoak. Hilkortasun handiaren iturriaren bila, bi unitateak alderatzea bururatu zitzaion Semmelweisi, eta lehenengoan medikuntza ikasle gehiago aritzen zirela ikusi zuen. Ikasleak anatomia pabilioian gorpuak manipulatzeko jardun ondoren joan ohi ziren erditzeaz zeuden emakumeei laguntzera. Hala, mediku hungariarrak heriotzen jatorria ondorioztatu zuen: “Aztertzaileen eskuetan itsatsitako gorpuen partikulak”.

Infekzio hilkorra zerk eragiten zuen zehatz jakin gabe, 1846ko urrian bertan, erditze-gelaren sarrean konketa bat jarri zuen, mediku eta ikasleek eskuak garbi zituzten. Baina amatasun-gelaren arduradun zen Johann Klein doktoreak Semmelweis laguntzailea kalera bota zuen horregatik.

Hurrengo urtean, berriro onartu zuten ospitalean, baina beste amatasun gelan, Bartsch doktorearenean. Emakume haurdunak aztertu behar dituzten guztiei eskuak kaltzio kloruroz garbitzeko eskatzen hasi zen, eta berehala heriotza-tasa %0,9ra amildu zen. *Erditze ondoko sukarraren etiologiaz, kontzeptuaz eta profilaxiaz* lana ere idatzi zuen gaiaz. Baina Europako obstetra eta zirujau gehienek aurkikuntza arbuia zuten, eta 1849an lanetik bota zuten berriro.


1865ean, dementziak jota, eroetxe batean sartu zuten, eta handik bi asteira hil zen, jipoi baten ondorioz. Bizi artean, inork ez zion aitortu funtsezko aurkikuntza. Baina Louis Pasteurrek germenaren teoria garatu ondoren Semmelweis antiseptsiaren aitzindaritzat jo zuten. Eta Vienako Ospitale Orokorrean, haren estatua azpian, “Amen salbatzailea” dago idatzita. ■



Arrastoak 1976ko Apple I-ak ondo dabilta oraindik

STEVE WOZNIACEK 1976an diseinatutako Apple I ordenagailua saldu berri du Alemaniako enkante-etxe batek milioi erdi euroren truke. Steve Jobsi produktu berritzailea merkaturatzea bururatu zitzaion, eta Byte Shop izeneko elektronika denda kate baten bidez lortu zuten ordenagailu pertsonala banatzea. Kateak 50 ale erosi zizkien. Guztira 200 Apple I egin zituzten, eta 666,66 dolarretan saldu, Wozniacek zenbaki errepikatuak gustuko zituelako. Jobsek eta Wozniacek 5.000 dolar irabazi zituzten ordenagailu eredu harekin, orain ale bakar batek balio duena baino ehun aldiz gutxiago.

Applek saldutako lehen produktua izan zen, baina bizitza laburra izan zuen merkatuan, 1977ko apirilean Apple II berriak baztertu baitzuen. Senide gazteenaren soinu, kolore eta erresoluzio handiarekin ezin izan zuen lehiatu Apple Iak, baina produktuaren kalitatea gutxik jartzen du zalantzan 36 urte geroago: 200 ordenagailuetatik sei geratzen dira, eta seiek ondo funtzionatzen dute oraindik. ■



BONWDEB.FR

DIEGO CAÑAMERO

«Gorriak garela diotenei, behar gorria dugula erantzuten diegu»

Diego Cañamero (Campillos, Andaluzia, 1956) zortzi urterekin hasi zen lanean nekazal soroetan eta hamaseirekin sindikalismoan sartu zen. Geroztik hainbat aldiz atxilotu dute. Andaluziako Sindicato Agrario de Trabajadores-eko (SAT) bozeramaile da egun. Medioetan oihartzun handia izan du Mercadona eta Carrefour saltokietan egin dituzten ekintzek.

Testua eta argazkiak:


| AMAIA ZABALA TOLOSA |

El Coronil (Sevilla, Andaluzia) herriko alkatetzan izan zinen hamar urtetan zure ideiak praktikara eramatea lortu zenuen?

Hori ezinezkoa da. Hamar urtez nire herriaren alde lanean aritu nintzen etengabe eta gero gehiengo osoz dimititu nuen, berriz ere Sindicato Obrero del Campo-ra (SOC) itzultzeko. Udalean saiatu nintzen praktikan jartzen borrokan lortu nahi ditugun amets guztiak, baina zailtasun asko daude, batez ere ekonomikoak. Hala ere gauza garrantzitsuak egin genituen, esaterako, herritarrentzako demokrazia parte hartzailearen inguruan.

Etxebizitza politika interesgarria ere egin genuen. 500 lur sail banatu genituen bakoitza 100 metro koadrokoa, jendeak pixkanaka bere etxea eraiki zezan. 1.200-3.000 euroren truke saldu genituen. Horretaz gain etxebizitzak jarri genituen alokairuan, hileko errenta garestiena 37 euro zen eta merkeena 15 euro.

Lanpostuak sortzeko ere ahal zen guztia egin genuen; nekazari txikiei lagundu genien soro sozialak landu zituzten. Udaletik laboreak ereiteko zati bat finantzatzen genien eta nabe bat utzi genien jakiak manipulatzeko kooperatiba antolatu zezaten.



“Hiru urte geratzen dira SATeko kongresurako, gero landara joango naiz, lan egin eta 580 euroekin jubilatzen, politikoez dena izorratzen ez badute behintzat”.



PEDRERA.ES

Eskuinean, Manuel Sanchez Gordilloekin, azaroan izandako epaiketa baten ostean. Ezkerrean, Diego Cañamero Pedrera herriko jornalariet hitz eginez, murrizketen kontrako mobilizazioan.

Zein zen zure soldata El Coronileko Udalean?

Udalan izan naizen denboran, sekulan ez dut izan jornalari batek irabazten duena baino soldata handiagorik. Areago, lantaldean 65 lagun zeuden eta ni nintzen soldata baxuena zuena. Nire kulturaren parte da hori. Diru asko irabazten duzunean, eta eroso bizi zarenean, kargua itsatsi egiten zaizu eta ez duzu lehengora itzuli nahi. Politikan izan ondoren aurreko kargura itzuli den jende gutxi ezagutzen dut. Nik ez dut hori nahi.

Hiru urte geratzen zaizkit SATEko kongresua amaitzeko eta gero landara joango naiz, lan egin

eta 580 euroekin jubilatuzera, politiko hauek dena izorratzen ez badute behintzat. Unibertsitatera ere joan nahi nuke historia ikasteko, inoiz ez naiz eskolan izan eta ikasgai hori gaınditzeke daukat oraindik.

Askotan atxilotu zaituzte, kartzelan ere izan zara. Zerbaiten damu zara edo arro zaude egindako guztiaz?

Arro nago. Ez dut inoiz ezer lapurtu, ez naiz inorekin joka aritu, justua iruditu izan zaidana defendatu baino ez dut egin, eta herriarentzat justua dena defendatzen segitzen dut. Bost bider izan naiz kartzelan, lehenengoan 1976an, diktaduran, eta gainerakoetan ondorengo gobernuen pean. Baina ez dut damutzeko ezer egin, gure ekintza guztiak baketsuak dira.

Juan Manuel Sanchez Gordillo zure lagun eta adiskide izan da borroka horretan. Nola definituko zenuke?

Juan Manuel zintzoa da, Andaluziako langileen alde guztiz konprometitirik dago. Irakaslea da eta patxada ederrean bizi zitekeen, baina

bere bizia “erre” du 2.800 laguneko herri batean, hortzez eta haginez. Zuzena da eta ez du ezer, ondasun materialari uko egiten baitio. Nahi dugun mundua eraikitzeko pertsona baliotsua da.

Zer ekarpen egiten dio SATEk Andaluziako jendarteari?

SATEk ahal duen guztia egiten du andaluziarrek euren duintasuna berreskuratu dezaten, hori baita gizakiarentzat sakratuena. Ulertarazi nahi dugu zerbait justua denean, horren alde borrokatu behar dugula.

Zer harreman duzue Espainiako Estatu beste sindikatu batzuekin?

Beti dago harremanik beste sindikatuekin, batez ere nazionalistekin eta eskualdekoekin. Orainsu estatu mailako bilera egin dugu eta bertan izan dira Kataluniako sindikatuak, Galiziakoak, Madrilgoak, Valentziakoak, Zaragozakoak... Espainiako Estatuaren egoeraz hitz egin dugu eta borroka garrantzitsuetan bat egiteko esfortzua indartu beharraz.

Hedabideek hainbat saltokitan egin zenituzten ekintza sinbolikoei jarri zieten arreta, baina aldi berean, gertakaria desitxuratu nahi izan dute, "lapurreta" eta "asaltoa" gisako hitzekin.

Arcos de la Fronterako Mercadona eta Carrefour-en egindako ekintzak salaketa izan ziren. Lapurtzera doana gaeuz eta burua estalita doa, inork ez ikusteko, eta norberarentzat lapurtzen du. Guk ez dugu guretzat lapurtu. Protesta publikoa egin genuen: adierazi nahi genuen XXI. mendeko Europan -askatasunen eta giza eskubi-deen Europan- Andaluzian 400.000 familiek kide guztiak langabezia dituztela eta 350.000 familiatan inork ez duela laguntza sozialik jasotzen. Benetako datuak dira. Astez aste, Cáritasen, Gurutze Gorrian, udaletako zerbitzuetan, elizetan... ilara luzeagoak dira. Eta ez da jende gehiago joaten lotsa ematen dielako! Hori guztia salatu nahi izan dugu Carrefour eta Mercadonako ekintzekin. Baina burgesiak barregarri utzi eta kriminalizatu nahi izan gaitu. Esaten digute ezker erradikala garela, eta guk erantzuten diegu behar erradikala dugula.

SATEk hainbat manifestazio babestu ditu hilabeteotan, esaterako, ikasleen mobilizazioak eta azaroaren 14ko greba orokorra. Zein aldarrikapenek batzen zaituzte?

Martxoan Somonteko (Kordoba, Andaluzia) finka okupatu genuenetik kanpaina egiten ari gara. Egin ditugu martxak, saltokietan ekintzak, manifestazioak eta eskualdeko grebak. Bost gauza aldarrikatzen ditugu:

Lehenik, oinarritzko errenta. Bigarrenik Espainiako Gobernuak egin dezala plangintza ekonomikoa, langabetuek hiru eta sei hilabete artean lan egitea lortzeko; modu horretan dirua herritarren eskuetara itzuliko litzateke eta jendarteko sektoreei bizitasuna emango lieke. Mahairatu dugun hirugarren eskakizuna da lurrak bana ditzatela. Laugarrena etxegabe-

tzeen ingurukoa da: ezin dugu onartu jendeari euren etxea kentzea, haurrak dituzten familiak kalean gertatzen ari dira; behintzat igo ditzatela hipotekak 25 urtetik 50era, baina jendea ezin da etxerik gabe utzi. Andaluzian 400.000 etxebizitza daude saldu gabe eta Espainian 4 milioi inguru dira.

“Lurrak zergatik ezin du pertsonen zerbitzura egon? Ez du inork eraiki, hor zegoen. Aireak publikoa da, denek arnastu dezakete, bada lurrak berdin izan behar luke”

Bosgarren neurria litzateke PER-eko [Nekazal Enpleguaren Plana, gaztelaniazko hizkietan] laguntza jasotzeko nekazaritzan 35 egun lan egin beharrenden baldintza kentzea, PER-a egunean 7 euroko subentzioa baino ez da. Eraikuntzan aritutakoak, immigranteak eta lehenetik gaudenak, horiek guztiak ari

gara orain nekazaritzan, eta denentzako lanik ez dagoenez, askok ez dituzte 35 egunak lan egiten eta oso zaila dute PER-a kobratzea.

Nola daramazue Europako sindikatu errepresaliatuena izatea?

Kezka handiz, sindikatuaren atzean errepresaliaturiko pertsonak daudelako. Oraitxe bertan 550 kide prozesatzen ari dira. Martxotik hona 132 kasu zenbatu ditugu eta horietatik 77 atxilotu egin dituzte. Inortxok ez du zentimo bakarra ere eraman paradisu fiskaletara, ezta eurena ez den ezer hartu, ez dute inor jo edo iraindu...

Gose grebak, manifestazioak, itxialdiak, bilkurak, errepide mozketak eta okupazioak baino ez ditugu egin. Baina erabat kezkatuta nago, norbanakoen isunetan 400.000 euro pilatzen baititugu eta zenbait lankidek beste auzi batzuetan epai irmoak dituzte jadanik. Eta hau XXI. mendean, askatasunaz eta demokraziaz hainbeste hitz egiten den honetan. Nik bi urte daramatzat judizialki intsumiso. Deklaratzera

Gabriel Aresti
euskaltegia eta akademia

Gabonak 2012

Umeentzako udalekuak
6tik 12 urtera

Bilbo:
Abenduaren 26, 27 eta 28 eta urtarrilaren 2, 3 eta 4 (6 egun)
8:30etik 15:30era
180€ bazkaria barne

- Tailerrak, antzerkia, bideoklipak, jolasak...
- Monitore espezializatuak (Kurkuluxetan umegunea)

Bakaiku (Nafarroa):
Abenduaren 26tik
30era edo urtarrilaren 2tik 4ra / 160€ edo 90€

- Mantenu osoa
- Txangoak, tailerrak, antzerkia, jolasak...
- Monitore espezializatuak (Intxorta Aisia Taldea)

San Bizente 2 - 4.a - Bilbo - Tel: 94 423 75 91 - bulegoa@gabrielaresti.com

www.gabrielaresti.com



“Gaur jendeari irakatsi egiten zaio, baina erabat manipulaturata eta analfabetoa den biztanleria dugu, asko dakien arren, ez daki ezer”.

naramatenean mutu agertzen naiz, ez dut ezer esaten, ez deklaratzeko eskubidea dudalako. Haiek ni baino, nik nekarazten ditut eurak. Ez dut kapritxoz egiten, ezta harropuzkeriaz ere, baina ezin da hainbeste errepresio egon. Zerrenda beltzak dituzte, eta ez garaia izan jakinda ere leporatzen dizkigute gertakariak; hori baino gauza injustuagorik ez dago munduan. Badaude pertsonak isunak ordaintzera derrigortu edota etxean atxilotuak izatera kondenatu dituztenak, ekintzetan izan ez diren arren.

Jabego pribatuaren kontra azaldu izan zara. Zein da proposatzen duzun alternatiba?

Ekonomiak pertsonen zerbitzura egon behar du eta jendea zoriontsuago izango den jendartea eraikitzeko balio behar du. Denok egon beharko genuke ados horrekin. Lehenik, horretarako formula aurkitu behar da, gero jarriko diogu izena.

Lurra, esaterako, naturaren dohaina da. Zergatik ezin du pertsonen eta ekonomia sozialaren zer-

bitzura egon? Ez du inork eraiki, lurra hor zegoen. Aire publikoa da, denek arnastu dezakete, bada lurak berdin izan behar du. Jabego pribatua, nik uste gizakiarenganako iraina dela. Zertarako pilatu halako aberastasuna? Inolako kontrolik ez duten etekin pribatuak sortzeko? Ez dut ulertzen. Bestaldetik, zoriontasuna gauzak edukitzearekin lotua dagoela esan digute, kontsumo ondasunekin. Zergatik ez da kulturaren, aisialdian eta laguntasunean oinarritutako zoriontasuna

“Kotoiaren %95 Andaluzian egiten da, baina ez dugu ehungintzako enpresa bakar bat ere”

sustatzen? Mundu ezberdina bilatu behar dugu. Egiten duguna izan dadila natura errespetatuz, zeren eta bizitzeko eskubidea ez da geurea bakarrik, gure ondorengoena ere bada. Datozen belaunaldiak lur osasuntsua aurkitzeko eskubidea dute, ez gehiago produzitzeagatik geneti-

koki eraldatutako lurra, pozoitzen ari dira-eta.

Zein litzateke egungo egoera politikoa eta ekonomikoa aldatzeko egitura egokiena?

Alderdi popularrak eta alderdi sozialistak ekonomiaren arloan gauza bera defendatzen dute. Diskurtso ezberdinak behar dituzten bi alderdi handi dira, 20 milioi botoak lortu eta “merkatu libre” deitzen den kapitalismoaren sistema kudeatzearen. Azalean ezberdinak dira

—oroimen historikoaren edo gay eta lesbianen inguruan egindako keinuak, kasu—, baina jendea engainatzen dute.

Akordatzen naiz nola anarkistak kortijoetara joaten ziren bizikletatxo bat

hartuta; jendeari idazten eta irakurtzen irakasten saiatzen ziren. Gaur jendeari irakatsi egiten zaio, eta denetarik daki, baina orokorrean biztanleria erabat manipulaturata eta analfabetoa da. Askok dakien arren, ez daki ezer. Gazteek ez dakite errealitateari nola aurre egin. Askok

pozten nau M15 bezalako mugimenduak ikusteak, gauza berriak deskubritzeko irrikaz, gazteak boteloia egiteko baino gehiagorako mugitzen direla erakusten ari dira.

Andaluzia “Espainiako Errauskine” dela esan izan duzu.

Andaluzia beti erabili izan da beste leku batzuetarako lan esku merkea lortzeko. Espainiako lurraldearen %17a da, 8,2 milioi biztanle ditu, 8 milioi hektarea lur eta horietatik %30a munduko lur aberatsenen artean dagoela esaten da. Klima ona dugu, denetarik landu daiteke hemen. Baina hala ere 2 milioi pertsona ditugu atzerrian: milioi bat Katalunian eta gainerakoa Espainiako Estatuko eta Europako beste lurraldeetan. Horrez gain, mahats-bilketa garaia denean 50.000 lagun joaten dira Frantziara, Nafarroara esparragoa biltzera...

Ezin dugu %34ko langabeziarekin segi –herri batzuetan %50etik gorakoa da–, ezta osasungintzaren arloan Espainiako Estatuko batez bestekotik zortzi puntu beherago egon ere, ezin dugu Europan langabezia, pobrezia eta eskola porrot gehien duten eskualdeen artean laugarrena izan. Horregatik diot Andaluzia dela Espainiako Errauskine. Beste tokietan baino arrazoi gehiago dugu hemen protestatzeko. Ez dugu Afrikara begiratu behar, gertu gauden arren, Europara begiratu behar dugu, Europan baikaude.

Lehengaiak Espainiako ekonomia-erentzat hain garrantzitsuak izanik, uste duzu nahikoa laguntza ekonomi-

ko ematen zaiela lurra lantzen duten langileei?

Behar duguna araudi bat da, nekazaritza produktuak erregulatzeko eta prezio finkoa ezartzeko, beste produktuei bezala. Nekazal produktuak jatorritik kontsumitzen diren arte, %700 garestitzen dira, eta zenbait kasutan %1.500. Bitartekariak, ezertxo ere egiten ez duten arren, diru guztia eramaten dute. Produktuak ez luke %20 baino garestiago izan behar kontsumitzaileak erosten duenean, modu horretan nekazariak eta kontsumitzaileak, biek irabaziko lukete, eta ez espekulatzaileak.

“Martxotik hona sindikatuko 77 lagun atxilotu dituzte. Inortxok ez du zentimo bakarra ere eraman paradisu fiskaletara”

Bestetik, laboreak antolatu behar dira, ezin ditugu abenturak bizi, 5.000 hektarea ereitea nahikoa bada, ez erein 10.000. Espekulatu duen merkataritzan gaude: garbantzuak Mexikora bidaltzen ditugu eta beste batzuk ekartzen ditugu Mexikotik; gertukoa lehenetsiko duen merkaturatu arautu behar dugu.

Etorkizunerako zein plan zehatz duzue Andaluziako langileen egoera hobetzeko? Baikorra zara?

Andaluzia ez dadila izan terratenienteen eta dukeen lurra. Lurra herriaren eskuetara igarotzea nahi dugu, kooperatibetara. Gaur egun, Andaluziako lurren %50a %2aren

esku baino ez dago. Nekazal erreforma nahi dugu, modernoa, natura zaindu eta herrien zerbitzura egongo dena. Produzitzen diren labore guztiak Andaluzian lantzea nahi dugu. Adibidez, kotoiaren %95 hemen egiten da, baina ez dago ehungintza enpresa bakar bat ere. Lagundu beharko genuke enpresak sortu daitezkeen. Modu horretan lanpostu asko sortuko lirateke.

Bestetik, nekazal turismoaren inguruan, naturarekin uztartzeko moduko turismoa nahi dugu, eta basoberritzeko plan zorrotza, pribatuak diren mendiak berreskuratu eta publiko bihurtzeko.

Borroka urte hauek guztiek merezi izan al dute?

Ez dakit ekarpenik egin ote dudan, baina saiatu naiz behintzat. Azkenean, mundua eraldatzen da injustiziak desafiatzeko ausardia duen jendea

dagoenean. Eraldaketa hori bilatzeko ausarta izatea da inportanteena, eta sindikatu honen aitzinean gaudenok ildo hori dugu. Baina egia da askotan ez dugula aukerarik izaten gure diskurtsoa zabaltzeko, hedabideak kontrolatuta daudelako.

Zortea izan dugu, Carrefour eta Mercadonaren kontuarekin tekla jo dugulako, eta lortu dugu behingoz benetako arazoez hitz egitea. Mundu guztiko egunkarietara iritsi zen ekintza: Iran, Txina, Japonia, Venezuela, Mexiko... 30 urte daramatzagu borrokan eta orain arte ez dugu halako eragin mediatikorik izan. ■



baga biga
 musika bulego integrala
 musikari bizipoza

gatibu	vendetta	bizardunak	sarkor	enkore	seirte	the uski's
estankona	doctor deseo	en tol sarmiento	ke no falte	gobeo bay	trikizio	gora herria

baga-biga musika idetxak
 tel: 914 072 045
 www.baga-biga.com / info@baga-biga.com

TERMOMETROA

SACHA ROSERO

«Kitxua biziberritzea posible dela ikusi dugu Katalunian eta Euskal Herrian»

Euskal Herrian izan dugu berrikitan Sacha Rosero (Otavalo, Ekuador, 1970). Kitxua da eta informatikaria, hizkuntzak biziberritzeko estrategiei buruzko graduondo ikastaroa iaz HUHEZIn egina. Handik hona, kitxua biziberritzeko lanean murgildurik bizi da, Kataluniako eta Euskal Herriko esperientziak lagungarri.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero



Kitxuaz hitz egin behar diguzu, zuen hizkuntzaren egoera Ekuadorren.

Orain dela 40 urte zuek zeundeten bezala gaude gu orain Ekuadorren. “Hitz egidazu kristauera... Zuen hizkuntzak ez du deusetarako balio... Laborarien hizkuntza da... Ez du unibertsitaterako balio...” Oinarrizko hezkuntzan ez da kitxuarik irakasten, lau herri-egunkari ditugu eta batek ere ez du kitxuaz publikatzen, 50 irрати-emisore ditugu baina bakarra elebidun —ezta kitxua hutsez ere!—, lau telebista kate eta batek ere ez du saiorik kitxuan... Horregatik esan dizut orain dela 40 urte zuek zeundeten bezala gaudela. Eta, naski, zuek orain duzuen egoera dugu helburu.

40 urte atzera.

Orain dela urtebete hasi zen dena. Garabide elkarteak, euskararen biziberritzeari buruzko jardunaldiak antolatu zituen, azken hamarkada hauetako prozesua azaldu zigun, zer egin den, zer den hizkuntza baten biziberritzea. Ikastaroa antolatu zuen eta hizkuntza minorizatuak dituzten zenbait komunitateko ordezkariak gonbidatu zituen: maia, aimara, ketxuera, kitxua... Amazonian oihanaren ekialdean ehunka hizkuntza daude, desagertzen ari direnak. Bada, iaz arte ez nekien! Ni, izan ere, informatikaria naiz, Internet bidezko marketina dut lana, baina ikastaro hartan izan nintzen...

Kitxua zara.

Bai, kitxua indigena. Hiru milioi laguneko giza taldea gara kitxuak, Ekuadorreko Andean bizi gaituzu. Gure hizkuntza, berez, jetxuatik dator, hots, Peruko hizkuntzatik, edo tahuantinsuiotik. Tahuantinsuo, espainiarren konkista baino lehen, Argentinako iparralde, Bolivia, Peru, Ekuador eta Kolonbia hegoaldea zen. Hori dena zen Inka inperioa, eta jetxua zuten hizkuntza “ofiziala”. Jetxuaren eta karank-en nahastetik —gure herri hizkuntza karanka baitzen garai hartan—, sortu zen kitxua. Ketxuaren parte da, nahi baduzu, nola diren valentziera eta mallorkera katalanarenak. Ber gauza dira kasik.

Hizkuntza minorizatuak

“AFRIKAKO GOSEA, ur hornidurak han eta hemen, kooperazio proiektuak, on da horiek laguntzea. Baina zer da Euskal Herriak egin duen gauzarik handiena? Hizkuntzaren biziberritzea. Hortaz, zertan ez dute hemengo erakundeek bereziki hizkuntza minorizatuak biziberritzen laguntzen? Munduan ehunka, milaka dira milenio honetako erronkei aurre egiten ari diren askotariko entitateak. Zergatik ez duzue hemen

zer edo zer berezi egiten, hizkuntza horien alde? Gainerako entitateek egiten dituzten ohiko kolaborazioak ez bezalakoak abiarazi, alegia. Jon Sarasuari esan nion, inportantea dela hemen zuek jakitea, euskararen biziberritzea adibidetzat dugula beste hizkuntza batzuen kasuan. Kitxuarenean, esaterako. Utzi alde batera Euskal Herriari egin zaion publizitate eskasa, kontrako esamesak, eta balia dezagun irudi positiboa”.

Zenbat zarete kitxua hiztunak?

Hiru milioi Ekuadorren, eta lehen Tahuantinsuo zen horretan, Latinoamerika guztian, hamahiru milioi gara, gutxi gorabehera. Asko. Edo nahikoak! Elkarrizketa prozesuan murgilduta gaude, kitxua panamerikarra egiteko asmotan, han ere nazionalismoak kopiatu baititugu. “Ez, ni ez naiz perutarra, nire hizkuntza diferentea da!”. Eta gisakoak. Batzen bagara, zer edo zer gara. Bat egin ezik, deus ez. Hamahiru milioi izan, edo hiru milioi... Latinoamerika osoa hartzeak indar handia du ekonomikoki zein politikoki.

“Ez kapela, ez pontxito, ez alpagata... ezer ez da gurea, hizkuntza besterik!”

Ekuadorreko hiru milioiak gune bateratuan zaudete, ala barreiatuak?

Komunitatetan sakabanaturik. Ekuadorren hiru dialekto ditugu: iparraldeko kitxua —han da Quito—, erdialdekoa, eta hegoaldekoa. Baina bat bera da hizkuntza, esan dudanez. Adibidez, “txakur” esateko, guk *allku* esango dugu, eta hegoaldean, berriz, *axku*. Eta orain dator galdera: “Nola idatzi?” Kar, kar, kar... Duela hamar urte idazkera normalizatzeko prozesuari ekin zioten, eta aldi berean, nazio mailako hezkuntza elebiduna abiarazi zuten —gaztelania eta kitxua—, eta horren

karietara, kitxua batua egin zuten. Egina dago.

Hezkuntza elebiduna esan duzu. Kitxua irakasten da, beraz.

Landa eremuko eskoletan, nekazari herrietan...

Bigarren mailako eskoletan, esan nahi duzu?

Horixe. Eta emaitza ere katastrofiko da. Eskola elebidun horietan ari diren haurrek ez dute irakasle bat besterik. Alegia, irakasle bakarra, eta gela bakarra: hantxe dituzte lehen mailatik seigarrenera bitarteko ume guztiak. Ikasleok hiriko eskolara jo nahi dutelarik, ezin dute, ez dute mailarik. Pentsatu ere ez unibertsitatera sartzerik. Nire irudiko, eredu horrek porrot egin du. Guk bestela egin nahiko genuke, hemen egin duzuen bidea egin.

Zein bide?

Hiru hilabetez izan ginen iaz HUHEZIn, Arrasateko unibertsitatean. Garabidek itzel egin du lan. [Xabier] Mendiguren eta beste. Ezagutu genituenean konturatu ginen; prozesua bideratu duten eminentziak dira! Beraien esperientzia kontatu ziguten, beraien jakintza gurekin partekatu zuten. Hedabideak garrantziko dira, baina hezkuntza da oinarri, eta irakaskuntza ereduak: A, B eta D. Horren arabera ari gara gu Ekuadorren. Egitasmo bat abiarazi dugu, Kitxu sisai izenekoa, hau da, “kitxuaren loratzea” esan nahi du. Gure plangintzaren arabera, bospa-



“Orain dela 40 urte zuek zeundeten bezala gaude gu orain Ekuadorren: ‘Hitz egidazu kristauera... Zuen hizkuntzak ez du deusetarako balio... Laborarien hizkuntza da... Ez du unibertsitaterako balio...’.

sei urte barru kitxua irakatsiko da probintziako 600 eskoletan, bigarren hizkuntza H2 bezala. A eredu, finean, baina lehenengo urrats moduan. Hamar urtean, kitxua ikastola sortuko dugu. Ez dakigu zein izen emango diogun, baina horixe izango da, kitxua ikastola.

Hamar urte zain egotekoak zarete?

Ez baitugu irakaslerik! Gure hizkuntzan irakatsiko duten irakasleak behar ditugu eta, horretarako, prestatu egin behar ditugu lehenengo. Hemen gertatu zen bezala.

HUHEZIn egin dudana hilabeteetan horixe ikasi nuen, hizkuntza bihotzez sentitu beharra dagoela, hizkuntzak kulturaren duen garrantziaz jabetu. Esan dizut, ni informatikaria naiz, Bartzelonan bizi izan naiz orain dela gutxi arte. “Indigena naiz” esaten nion neure buruari –horra nire kapela, nire pontxitoa, gure janari berezia...–, baina ez nion hizkuntzari opa. Orain, aldiz, konturatzen naiz kapela Italiakoa dudala, ez dela gurea. Alpargatak, Espainiako ohitura ditugu. Jantzita daramatzadan prakak, berriz, jantzera behartu gintuzten, esklabo egin eta lanera behartu gintuztenean kaxmirrak egin genitzan Europara ekartzeko. Hau ez da gurea, hura ere ez... Ezer ez da gurea, hizkun-

tza besterik! Hizkuntza galtzen badugu, kulturaren gunea galduko dugu. Hizkuntzaren bidez bizi gara, bizi da gure kultura. Kultura guztiak ahozkoak izan ditugu, hizkuntzaren bidez transmititu dira. Hizkuntza batean edo bestean egin transmisioa, esanahi ezberdina du, guztiz.

Horrela iritsi zara Euskal Herriraino.

Bai. Uste dugu garrantzizko dela prestatuko ditugun irakasleek hizkuntzaren militanteak ere sortzea. Hori ikusi dut nik. Unescok, esaterako, galtzeko arriskuan dauden

“Zuen zuzendaritza teknikoa nahi dugu, egin dituzuen okerrak guk ez egiteko”

hizkuntzen zerrendan jarri gaitu, ez dago belaunez belauneko transmisiorik! Gure aitaita-amamak “*Yanga ximi*” esatera behartu zituzten, hau da, “balio ez duen hizkuntza”. “Hitz egin dezagun *yanga ximi*” Behin eta berriz eta askotan esaten zuten hori! Baina ez da horrelakorik, *runga ximi* da, hau da, “gizakia- ren hizkuntza”. Orain, familiek, onbeharrez, ustez, gaztelaniaz hitz

egiten diete beren seme-alabei, etorkizun hobe izango dutelakoan, gurasoek beraiek bizi izan duten lotsa bizi ez dezaten. Horien umeak landa eremuko eskoletara iristen direlarik, ez dakite kitxuaz hitz egiten. Esaterako, geu gara kitxua hitz egiten duen azken belaunaldia. Ondotik datorren belaunaldia, hiztun pasiboa da. Eta hirietan hazi direnek bihirik ere ez dakite kitxuaz.

Egiten duzun lanaz ari zarela, “gu” diozu. Nor eta nor zarete “gu”?

Kitxuaz hitz egiten duen belaunaldia gara, gureaz ez beste kultura batzuk ezagutzeko aukera izan duena. Batzuek Euskal Herriko egoera ezagutu ahal izan dugu, eta hizkuntza bat biziberritzeko modua dagoela ikusi. Euskara, katalana, hawaiiera indartu eta normalizatu daitezkeela ikusi dugu, hizkuntza biziberritzea posible dela. Arlo ezberdinetan lanean ari den jendea gara, soziologo, informatikari, ekonomialari. Gurekin batera, erakunde pribatu eta publiko zenbait, kitxuaren alde zer edo zer egiten ari direnak, edo egiteko interesa dutenak. Ni neu, esaterako, Runa patxa elkarteko burua naiz, GKE bat, Katalunian sortu genuena duela bederatzi urte.

Ez zarete hasiberriak, hortaz.

Kultura sustatzen hasi ginen Bartzelonan, hizkuntzaren irakaskuntza, hitzaldiak... askotariko kultur ekitaldiak antolatzen jardun dugu. Azken bi urteak, berriz, hizkuntzari lotu gatzazkio erabat. Heldu egin gara gu ere!

Katalunian lanean hasiak, uste nuen Ekuadorren salbatu behar zela kitxua. Hil ala biziko egoeran liteke zuen hizkuntza.

Txepetxek dioenez, hiru belaunalditan galtzen da hizkuntza, eta hiru belaunalditan berreskuratzen da. Azkeneko hiztun belaunaldia gaituzu, eta gure ardura da galera prozesua iraultzea. Gure ondotik datorren belaunaldiak lanak izango ditu, zailtasun handiak. Guk kitxua hitz egiten dugu. Haiek ez.

Kitxua hiztuna zu, Bartzelonan!

Hogeita bat urte daramatzat atzerrian. AEBak, Brasil, Venezuela,

Afrika, Espainia... Gure egitasmoa tarteko, Ekuadorren izan nintzen orain dela bederatzita hilabete. Han da borroka zelaia, badaikit. Eta, orain, ekonomi krisia, eta beste egoera bihurri batzuk tarteko, hara noa bizitzera. Kito da. Han borrokatu behar da. Lan handiena egiten duen taldea ere Otavalon da. Guk denok Kitxua xum osatzen dugu. Kitxua xum-ek esan nahi du "bizi gaitezen kitxuaz!", "izan gaitezen kitxual!". Erakunde horrek zuzenduko du prozesu osoa. Partidari hasiera eman diogu, baina ez gara bakarrik ari, jende mordo ari da kolaborazio lanetan. Geu ari gara partida jokatzen, baina Kataluniako Generalitatearen aholkularitza juridikoa dugu, hango Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzaren babesa. "Dirurik ez dago orain, baina katalana normalizatzeko bidean egin ditugun urratsak zuekin partekatzeke eragozpenik batere ez dugu. Alderantziz, gutxienez hori egin behar dugu". Zuzendaritza teknikoa nahi dugu, ez besterik, hemen egin dituzuen okerrak ez egiteko guk. Eta berdin Euskal Herrian. Gure hizkuntzaren biziberritzeak antz handiagoa du euskararenarekin, katalanarenarekin baino. Hasteko, kitxua ere ez baita hizkuntza erromanikoa. Katalanaren eta euskararen arteko nahaste bat behar genuke, normalizazio prozesuari dagokionean. Guretzat nahitaezkoa da elkarlana. Galdutzat ematen genuen kitxua biziberritzea. Inposible bat genuen, ezinezko, eta, aldiz, posible dela ikusi dugu.

Otavallo, indigena juduak

"NI BEZALA JANTZITAKO JENDEA, ile luzea, plazarik plaza saltzaile... Otavallo gara. Gure musika eta artisautza harturik gabiltza munduan. Saltzaile kualitate nabarmen hori duen komunitate indigena bakarria gara. 'Indigena juduak' gaituzu, munduko lau kornereetan ikusiko gaituzu, gure produktuak salgai. Gizarte kapitalista baten baitan bizi gara, eta dirua duenak boterea du. Guk, bestal-

de, gure buruak hezteko aukera izan dugu. Orain dela bost belau-naldi, berriz, ez genuen hezkuntza eskubiderik, galarazia genuen eskolara sarrera. Gurean osaba-izebak izan ziren eskolara sartzen lehenak, unibertsitatera iritsi zirenak. Harrezkero, bidea egin dugu, eta gaur egun otavalloak zoko guztietara iritsi gara. Badituzu ekonomialariak, abokatuak, medikuak, ingeniariak..."

Zertan da agintea Ekuadorren? Kitxuekiko sentiberatasunik badu, kontzientziarik, konpromisorik?

Andetarrak gaituzu, eta, andetar garenez, patxamama dugu sineste, lurra sinesten dugu, planetaren energia. Ez da sinestea bakarrik, badakigu bizirik dagoela, gainerako izaki bizidunak bezala. Egiten dugun guztia, sineste horrekin batera egiten dugu: denbora-lekuak, alegia. Gure ekipotan, *yatxa*-k ere baditugu, txamanak hemen, lider espiritualak. Ongi eza gutzen dute gure kultura, eta haien jakituria ere gure proiektuan integratu nahi dugu, hizkuntz proiektua da gurea, baina kulturala ere bai. Horren arabera, ematen du agintea gure alde jartzeko garaia heldu dela.

Zer esan nahi duzu?

Juridikoki, lege babesa dugu. Hamar hizkuntza hitz egiten dira Ekuadorren. Kitxua da nagusi. Konstituzioaren arabera, kitxua hitz egiten den lekuetan, hizkuntza koofiziala da.

Hortaz, ez gara estatuaren kontra ari. Duela urtebete, berriz, hezkuntza lege berria onartu zuten, Correa lehendakari zela. Gauza on asko ari da egiten Correa. Boterea kudeatzeko modua ez zait gustatzen, baina ongi ari dela lanean esango nuke. Hezkuntza lege horretan, honela esaten da hitzez hitz: "Ekuadortar guztiek dute hezkuntza beren hizkuntzan jasotzeko eskubidea". Jakina, ez du esaten noiz, nola, non ez nork finantzatzeko duen, baina marko juridikoa ezarrita dago. Generalitatearen Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzan esan zidatena: "Marko hori gabe egin dugu guk egin dugun guztia. Horra oraindik, Espainian, ministroa, 'Katalan umeak espainoldu nahi ditugu' esaka. Zuek, marko hori duzuelarik, lan zoragarria egin dezakezue". ■

Elkarrizketa osoa argia.com-en dago.







Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.









«Franco nazia zen, faxista baino gehiago»

Historia liburu batek agerian utzi du Espainia erabat nazifikatu zela 1936ko gerraostean. Egileak dio horrek arrasto ideologikoa utzi zuela frankismoan, baita Hitler erori ondoren ere.

| JON TORNER ZABALA |

EDUARDO MARTIN DE POZUELO *La Vanguardia* egunkariko erredaktore burua Francoaren erregimenaren eta nazismoaren arteko loturez mintzo da *El Franquismo, cómplice del Holocausto* (Frankismoa, Holokaustoaren konplizea) liburuan, 2005az geroztik kontsultatu dituen dokumentu estatubatuar, ingeles eta espainiarrak abiapuntutzat hartuta. MásPúblico kazetari-kooperatibak elkarrizketa egin dio eta galdera-erantzun zenbait euskaratu eta gurera ekarri ditugu.



Hitler eta Franco Hendaian; argazkia nahita moldatu zuen diktadore espainiarrak.

Zer ekarpen egiten du liburuak, frankismoaren eta nazismoaren arteko harremanari dagokionez?

Ziur naiz, eta saiakera honen irakurleek ere hala ikusiko dute, Francoaren Espainia ez zela faxista izan, nazia baizik, gerra-ostekoa batez ere. Espainia erabat nazifikatu zen, Hirugarren Reicharen apendizeta izateraino.

Baita nazismoa erori ostean ere?

Bai. Francok, arrazoi politikoek bultzatuta, aliatuen karta babestu beharra izan zuen, aliatuek beldur gehiago ziotelako Stalini Francori baino. Gobernu komunista ezartzea baino, hobe diktadorea geratzea, zioten. Benetako aliantza, ordea, Hirugarren Reicharekin egindakoa da. Izugarriko arrasto ideologikoa utzi zuen. Adibide bat jartzearen: prentsaren gainera kontrola mantenduko da, Bigarren Mundu Gerran Goebbelsek bidalitako 150 adituren zaintzapean.

Azaleratutako dokumentuek jende asko lotsaraziko al dute?

(...) Nire belaunaldiko jendea irakatsi zitzaionez, Hendaia bileran Francok lotsarazi egin zuen Hitler. Bada, alemaniarrek idatzitako akta irakurtzean, alderantzizkoa gertatu zela jakin ahal izan dut. Francok Bigarren Mundu Gerran sartzea sinatu zuen (...) Hitlerrek, halaber, ez zuen onartu Afrika iparraldea Francoaren eskuetan uztea. Historia alderantziz kontatu digute.

Zer nolako parte-hartzea izan zuen Espainiak gerra horretan?

Handia. (...) Alemaniarren gerra-zentroa (COS izenekoa) Madrilen

“Ez ginen neutralak, erabat naziak baizik. Liburu honetan erakusten dudanez, Franco holokaustoaren konplize aktiboa izan zen”

zegoen, espia naziak entrenatzeko zentroa Bartzelonan, Gestapoak bulegoak zituen Espainiako polizia-etxeetan... Ez ginen neutralak, erabat naziak baizik. (...) Liburu honetan erakusten dudanez, Franco holokaustoaren konplize aktiboa izan zen.

Azaldu ezazu hori...

Elkarren arteko adiskidetasun mailaz jabetu zaitezten: 1943an, espainiar jatorriko judutar guztiak Espainiara bidaltzeko aukera eskaini zion Hitlerrek Francori, eta honek dozena erdi aldiz egin zion uko.

Zer gertatu zitzaien?

Guztiak hil dira. Kontzentrazio esparruetara eraman zituzten. Haien bizitza eskuetan izan zuen Francok. Horregatik diot konplizea izan zela. (...) Irakurri ditudan dokumentuen arabera, tamainako eskaintza Francori besterik ez zion egin Hitlerrek. Alemaniarrek galdetu ziotenean judutarrak Espainiara eramaterik zergatik ez zuen nahi, hala erantzun zuen Francok: “Alemaniaren etsaiak, Espainiarenak ere badira”. Hala ere, espainiarrak zirenez, haien ondasuna espainiar agintarien esku geratu behar zela zioen. Pertsonak baztertu zituen, baina haien dirua eskuratu zuen. Biktima horien oinordekoek espainiar estatuauren aurkako erreklamazioa jartzea espero dut, lapurtu dieguna itzul diezaiegun. ■



Wert ministroaren zartakoa

BELARRONDOKO EDERRA izan baita Espainiako Hezkuntza ministroarena, ezustekoa euskaldunentzat, katalanentzat eta galegoentzat. Aurreproiektuak harri eta zur utzi ditu gehientsuenak.

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluko idazkari nagusi **Paul Bilbaori** ARGIArako egin diogun elkarrizketan ondoko iritzia eman digu aurreproiektuaz: “Astakeria da, atzerapauso ikaragarria izan daiteke. Orain dela 40 urteko errealitate itzuli behar al dugu? Oso argi daukat, gaur egun daukagun legea egonda ere, herri honetan herrigintzak eutsiko diola murgiltze ereduari; garai makurra goetan ere eutsi zaio. Herri gogorak orain eutsiko badio ere, hau eraso da. Noiz eraikiko dugu honi guztiari aurre egiteko harresia? Irakaskuntzako eragileekin egon naiz eta inork ez zuen espero. Curriculumarena bai, erlijioarena ere bai, baina hizkuntzarena ez. Nire kezka da, hau ote den gaztelaniaren aldeko lege baten aurrekaria. Seguru nago badatorrela gaztelaniaren legea. Horrek

autonomia erkidegoetako eskumenak eta ofizialtasuna apurtzen ditu. A ereduaz gain B eredu moduko bat nahi dute. Auzitegi Konstituzionalak dotrina jarrita dauka, sistema batek ez badu hizkuntza ofizialaren ezagutza bermatzen legez kanpokoa dela”. Nola bermatuko da 16 urterekin gaztelania eta euskara, biak ezagutzea, oraingo ereduarekin bermatzen ez bada? Bietariko datuak daude: D ereduan ikasita ere euskaraz ondo moldatzen ez diren gazteak dauzkagu, eta bestalde, eredu bereko ikasleek gaztelania mailaren batez bestekoa aise gainditzen dute.

Irene Rigau Kataluniako Irakaskuntza kontseilariari kazetari batek galdetu dio ea Katalunian hizkuntza arazoren bat dagoen: “Arazoa izango genuke Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitutakoan edo Selektibitatean gaztelania ikasgaia gaindituko ez balute. Baina ez da hala”.

Vilaweb agerkari katalaneko zuzendari **Vicent Partal**, katalanez ikasi nahi duten valentziarrez

gogoratu da Wertek aurreproiektua mahai gainean jarri duenean: “100.000 familia valentziar baino gehiagok ezin izan dituzte haurrak eskola katalanera eraman Gobernuak plaza nahikoa ez zituelako eskaini. Wertek baldin badio, katalanezko hezkuntzarekin pozik ez dauden familiek gaztelaniarazko hezkuntza (aurrekontuetatik) ordaindua izateko eskubidea daukatela, arrazoizkoa litzateke katalanez ikastea eskatu eta lortu ez duten familia valentziarrei Estatuak irakaskuntza pribatua aurrekontuetatik ordaintzea”.

Ez daukagu urrutira joan beharrik horrelako adibideak aurkitzeko. Etxean daukagu Sortzen-Ikaskuntzaren exodoa deitutakoa. Eredu erdalduneko gurasoek eremu mistoko herrietara daramatzate haurrak, bizitokian euskarazko irakaskuntza bermatzen ez zaielako. Familia nafar horiek, baita Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako ere, eskertuko lukete Estatuak aurrekontuek “gastuak” bere gain hartuko baliatuzte.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Ona Electroerosion, biktima politikoa?

AZKEN EGUNOTAN, Espainiako Zerga Agentziak salaketa larria egin du Durangoko familia abertzale bati loturiko makina erremintako enpresa baten kontra. Telebistek, irratiek eta egunkariak –nazioartekoak barne– handitasunez zabaldu dute albistea, argazki eta guzti. Baina hedabideak isildu egin dira enpresak ofizialki salaketa ukatu duenean. Enpresak Ona Electroerosion du izena eta “Iranekin kontrabandoa egitea” leporatzen diote, “Irango errepublikan ugaritze nuklearra sustatzea” helburu duen makinaria saltzea, hain zuzen. Espainiako Ogasun Ministerioaren menpeko den Agentziak zioen, NBEk agindutako blokeoa gainditzeko, “Irango erosleak Turkian sortutako enpresa-bitartekaria baliatu” zuela Durangoko konpainiak. Era berean, Agentziak zioen operazio ilegala kartzela zigorra eta isun milioiunak ekar zitzaizkeela Durangoko enpresarentzat.

Durangoko enpresak akusazio guztiak ukatu ditu. Bere esanetan, duela urte asko ari da makinaria hori esportatzen, beharrezko baimenekin. Horrez gain dio, saldutako materialak ez duela zerikusirik helburu nuklearrekin. Eta amaitzeko hau ere esan du: ez duela inolako harremanik Turkiako ezkutuko enpresarekin. Zergatik isiltzen da orain Espainiako Zerga Agentzia? Zergatik isiltzen dira aurretik salaketa hainbesteko hotsandiz zabaldu zuten hedabideak? Zeinek hartuko ditu bere gain kostu ekonomikoak eta enpresaren irudiaren galera? Badirudi historia tamalgarri honek zerikusi gehiago duela interes politikoeekin errealitatearekin baino, eta Ona Electroerosion enpresa durangar abertzalea, Espainiako Gobernuaren biktima politiko bat gehiago izan dela.

Juan Mari Arregi



Sahel haretsua hesi berdez hezetu nahian

Klimaren aldaketari Afrikan eman nahi zaizkion erantzunetako bat Hesi Berdea da: 6.900 kilometro luze eta 15 kilometro zabal edukiko duen gerriko oihanezkoa ozeano batetik bestera, Senegaletik Djibutiraino. Tartean badira eredu ezberdinak eta polemikak. Baina Nigerrek urteotan basoz hornitu omen du bi Euskal Herri adinako eremua.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

NEW YORKI 'SANDY' EKAITZAK uholdez gogorazi dio klimaren aldaketa heldu dela. Afrikari, Saharako basamortuaren aurrerakadak. Dagoeneko Afrikako eremuaren %40 dago desertifikazioak gutxiago edo gehiago jota; 2025erako kontinenteak galdua duke nekazaritzarako balio zion lurraen bi heren.

Zer egin? Sahara inguruko herrialdeetako agintariek itxaropen handia daukate jarria Hesi Berde Handia delakoan. Atlantikotik Indiako itsasora, Senegaletik Djibutiraino 11 herrialde zeharkatuz, 6.900 luze eta 15 kilometro zabaleko gerriko hezea. Operazioa laburbildu du *The Ecologist* aldizkarian Bobby Bascombek *The Great Green Wall* kronikan.

Lehenik Bascombek Dakarreko agintarien asmoa aurkeztu du. Alegia, gero eta laburragoa den euri aroan herritarren laguntzarekin milaka arbolatxo landatzea, lekuko espezieetakoak, nekazariak beren beharretarako egokiak izango dituzten klaseetakoak, ahuntzak sartu ez daitezen hesitutako zelaietan.

Asmoak usteltzen ez badira, alde batetik lekuko laborariek basoa handitu ahala zuhaitzen egurra, fruituak, goma arabiarrak bezalako mozkinak eta osasunarentzako sendagaiak ere eskuratuko dituzte. Maila zabalago batean, ingurume-

nak ere irabaziko du: lurzorua higidura gutxitu, gero eta urriagoak diren euriteetako urari hobeto eutsi, lurpeko geruza freatikoa berriro ase... eta Dakar bezalako hiri modernoak itotzeraino ugaritu diren harea ekaitzen indarra ahuldu.

Helburu guztion bila Senegalek koordinatzen duen *Great Green Wall* proiektuak orain arte 1.800 milioi dolar jaso ditu Munduko Bankutik eta 108 gehiago Nazio Batuen Ingurumen Agentziatik. Senegalek orain arte 20.000 hektarea baino gehiago oihandu omen ditu proiektu horren barruan, lehendik zeuzkan basoak hobeto zaintzeko hartutako neurriek gain. Urtean hiru milioi landatzen dituzte Senegalen.

Bascombek, ordea, zuhaitz landaketon emaitzekin eszeptiko aurkitu ditu Sahelen urte luzez ari diren adituetako batzuk. Horien artean Gray Tappan geografoa eta Chris Reij agroforesterian aholkularia. Hauen ustez lehendik ere porrot egin duten zuhaitz landaketa tipiketatik harago joan behar da basamortuari aurre egitekotan. Ezingo zaie ezarri sistema bakar bera ia 7.000 kilometrotan barreiatutako komunitateei.

Albiste ona da hareatzak berdezko ereduak badaudela, zorionez. Tappanek Nigerrekoa azpimarratzen du. 1980an ikaragarritzko idor-

Sahelko soro batean emakumea labore berria *zai* molde zaharrea ereiteko zuloak egiten. Zulo horietan gero haziak eta aziendek simaur ondua sartuko ditu. Euria denean bestela ihesi joango litzatekeen ura putzuetan geratuko da, haziari erne eta landareari handitzen lagunduko dion hezetasuna atxikiz. Sahara ertzeko leku askotan ari dira berreskuratzen antzinako *zai* laborantza, zulo sakonago nahiz axalagoz. Gero eta sarriagotan aurrerako uzten dituzte abereen gorotzetako hazietatik ernetako zuhaixkak. Europan eta AEBetan hedatzen ari den agroforesteria, laboreak zuhaitzen artean ereitea, Afrikako molde arrunta izan baita betidanik. Zuhaitzek lurra ongarrizten dute orbelez, itzalez ingurua freskatzeko, hegazti eta abereak elikatu eta babesten; eta gainera herritarrei eskaintzen dizkiete fruituak jateko, zura eraikuntzarako eta egurra sutarako.

teak nekazaritza hondoratu zue-nean, laborariek erreakzionatu zuten beren gurasoen sistemara itzuliz: soroetako zuhaixkei hazten utzi eta haien inguruan erein laboreak. Geroztik uztak hobetu dituzte, elikadura segurtatu eta Nigerrek 45.000 kilometro karratu arboladi irabazi.

Lurra eta jendeak zaindu

Milaka arazorekin, tartean gerrak daudelako, krisi politikoak, 11 milioi jende goseak Sahel osoan barrena... baina kontua da milaka herritar eta komunitate ari direla buru-belarri basamortua hezetzeko ahaleginean. Horien adibideak eskaini izan ditu Mark Hertsgaard kazetari iparramerikarrak *The Nationen* eta *Le Monde Diplomatiquen*.

Klimaren aldaketan eta justizia klimatikoaren deitu zaion mugimenduan jakituna den Hertsgaardek gehienetan emakumeak aurkitu izan ditu zuhaixkak landatzen eta zaintzen, familia, etxea eta ortua ere beren gain edukiz. Senegaleko Koutal herrixkan, esaterako, non atzerriko diru-laguntza eta aholkulariak baliatuz 290 hektarea harritsu arbolaz berdetzea lortu baitute.

Agroforesterian –laboreak zuhaitz artean hazteko teknika zaharberrian– mundu mailako ospea duen Dennis Garrityk pro-



ziren. Denborarekin laboreei baino arreta handiagoa eskaini die Sawadogok zuhaitzei, etekin ekonomiko handiagoa ateratzen dielako.

Esperientziak erakutsi du soro eta zelaietan berez etorritako zuhaitzek biziraupen hobea dutela mintegietan sortu eta zeharraldatutakoek baino. Hori sustatzen dute bertan ari diren Gobernu Kanpoko Erakunde batzuek, eta bertako herritar askok ere bai. Baina zuhaitzen etsai bakarra ez zen ezjakintasuna.

Ende eskualdean, Malin, herriko baso eta zuhaitzak *Barabogon* deitu nekazari batasunak kudeatzen zituen; gurean ezagutu diren *zilegi lurrak* eta *herri basoak* oroitarazten ditu *barabogon* horrek. Baina Frantziak kolonizatutakoan, egurra ateratzea debekatu zuten. Lurra zurea bazen ere, zuhaitzak estatuarenak ziren. 1960ko hamarkadan independentzia lortu bai baina lege kolonialak bere hartan segitu zuen. Baserritarrek arbolatxoak erazten zituzten, haiek gero mozteagatik zigortu ez zituzten.

1990an liskarrak izan ziren estatuaren guardekin, baserritarrek horietako batzuk hil egin zituzten. Bakeagatik legea aldatu, nekazari berri eman oihantetik egurra ateratzeko eskubidea... eta basoa hasi zen handituz zabaltzen.

Chris Reij aditu holandarrak kalkulatu du Nigerren bertan baserritarrek 200 milioi zuhaitz berri atera dituztela aurrera. Hala ere, ahaleginok aski izango ote dituzte munduak CO₂ isuriak murrizten ez baditu? ■



posatu dio Hertsgaardi Hesi Berdearena metafora gisa erabili behar dela, zati berdinez eta goitik behera planifikatutako zera bat bezala ez baina bertako herritarren bizimodua, elikadura, eta ingurumenaren zainketa lotuko dituen asmo anitzen bilduma bezala.

Laboreak arbola artean ereitea betidanik egin izan da Afrikan, Europatik ekarritako laborantza industrialak gauzak aldrebestu zituen artean. Udako agorrean freskura ematen duten hostoak lurreratutakoan orbel ongarrri bihurtzen dira. Zer besterik da permakultura?

Burkina Fason famatu egin da beste eredu bat, Yacouba Sawadogo baserritarrak abiatu zuena. Irakurtzen ez dakien gizon honi duela


urte batzuk bururatu zitzaion guraso zaharren tekniketara itzultzea. 1972tik 1984ra luzatu zen lehorre ikaragarriaren amaieran ekin zion mende luzez Sahara inguruko eremuetan erabili den zai sistemari: laboreak ereiteko zuloak egin (Sawadogoren eskualdean askoz axalekoagoak dira goiko argazkian ageri direnak baino) eta horietan ukuiluko simaur zaharretan laga haziak eurien zain.

Sawadogok zein jakintsua den erakutsi zuen gorotzetan gordetako hazi batzuetatik artatxikiaren eta basartoaren aldamenean sorturiko zuhaixkei bizirik irauten utzi zienean. Arbolok hazi ahala, lurra ongarrizko eta higadura murrizteko laguntzaile onenak bilakatu



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Identitate borroka

SUTAN sumatu dugu Kataluniako gizartea Alderdi Popularrak, Wert ministroa buru, aurkeztu berri duen hezkuntza erreformarekin. Haserrea nabaritu da Euskal Herrian. Bada desberdintasunik bata eta bestearen artean. Katalanen gehiengo handiak bere-berea sentitzen duen hizkuntza eta hezkuntza proiektua arrisku bizian ikusten ditu. Han askoz aurrera-tuago daude katalanaren garape-nean, eta hortik erasoaren aurreko erantzuna. Hizkuntza muinean, berriz ere.

Erasoa gordina baita: PPren bir-zentralizatzeko politika, autonomismoari eraso, gaztelania ez diren beste hizkuntzei eraso, hezkuntza uniformatzeko saioa... Askok aipatu du hizkuntzaren ikuspegitik frankismotik hona izan den eraso-aldi handiena dela hau. EAeko parlamentuko ordezkariaren %85 mintzatu da proiektuaren aurka alderdien bidez. Eta bitxia bada ere, Nafarroako foru legebiltzarren kasuan arbuioa handiagoa da, alderdien adierazpenak aintzat hartuta, ordezkarien %92k adierazi baitu ez dagoela ados Wertekin.

Bai, badakit Nafarroako kasuan tranpa egin dudala. Egia da UPNk esan duela legeak aldaketak behar dituela, ezin dela dagoen bezala onartu, besteak beste Nafarroako Euskararen Legearekin arazoak leudekeelako. Bai, PPko lau parlamentariak bakarrik daude ados Nafarroan, baina UPNko 19ak ere pozarren leudeke Wert lege berri batek D ereduaren berezko zailtasunak behin betiko finkatuko balitu.

Kontua da, nork eta UPNk, zuhur atera behar izan duela legearen aurrean. UPN eta zuhur?

Kontrajarria, ezta? Baina garaio-tan hala dabil alderdi nabarrista, zuhur. Oposizioaren bultzadaz, estu dabil legebiltzarrean; aurre-kontuak luzatu beharko ditu; alderdi barruan tentsioa bizi du, eta berau gidatzeko seguruenik bi lehendakari izango ditu hurrengo udaberriko kongresuan, Yolanda Barcina eta Carlos Catalán. Eta beretzat larriena, krisia medio, bere gobernuak higidura handia jasan duela herritarren artean. UPN baitan beldur handia dago hauteskundeetako emaitzekiko, eta dagoeneko ez da zalantzarik hauteskundeak aurreratu egingo direla. Kontua da noiz: UPNko kongresuaren aurretik ez da izango, eta beraz, zalantza da 2013ko uda aurretik izango den edo ondoren.

Wert ministroaren legea gauzatuko balitz, nola demontre joango da EAeko lehendakari berria Moncloara kosubiranotasunaz mintzatzeraz?

Eta non kokatzen da puzzle honetan lerro hauek idazten ari naizen unean lehertu den Cervera auzia? Azkarregi da jakiteko, baina auziari kiratsa dario. Santiago Cerverak bere blogean emandako azalpenak sinesgarritasun eskasa du: edo diruaren hotsak bera ere galarazi du –epidemia da hori PPn–, baina orduan erarik baldarrenean jardun du; edo bai, norbaitek zelada jarri die bai berari eta baita Jose Antonio Asiaini ere. Astea bero dator kontu honekin, baina berriz geratzen da agerian CANek zulo beltz ugari izan

dituela azken 10 urteotan. Duela gutxi, Nafarroako Parlamentuak CAN sakon iker zezan bultzatu zuen oposizioak, baina PSNk uko egin zion. Orain, zipriztinak noraino iritsiko diren ikusi behar.


Baina PP eta Wert ministroaren asmoez ari nintzen. Zalantza gutxi dago, aurrera eramango dute, ikusi behar Katalunia eta EAEREkin negoziatuta ala ez. Kataluniak argi esan du, ez du lege hau onartuko. Kontua da egungo eredu eta PPren asmoen artean ez dagoela tarte onargarririk katalana, euskara edo galegoarentzat. Edo PPk inposatzen du berea eta gatazka instituzional erraldoia zabaltzen da Espainian, edo berea inposatzen du eta frankismoaren bertsio modernoan murgiltzen gara. Hautatu egin behar. PPK Espainiako Estatuaren indar osoa du bere atzean. Zein da euskal herritar eta katalanen indarra?

URKULLU lehendakariak oso ibilbide gaitza du aurrez aurre, krisiaren zailtasunei, Espainiako estatu ereduarena ere gehitu beharko dio. Wert ministroaren legea gauzatuko balitz, nola demontre joango da EAeko lehendakari berria Moncloara kosubiranotasunaz mintzatzeraz? Frankismoak abertzaletasuna elikatzen zuen gisa berean elikatzen du orain PPK independentismoa. Bai bere erraietan dagoelako Espainia bakar eta batuaren ereduarena, eta baita ere, krisi garai latz haue-tan horrek Espainiako gizartea kohesionatzeko balio diolako. Euskal gizarteak zein osagaiekin egingo ote du bere zementua? ■



ASTE HONETAKO

zozketak



A fuego negro jatetxea

2 laguntzako afaria

Abuztuaren 31, 31
Donostia GIPUZKOA

www.afuegonegro.com

1

Iruñeko Planetarioa

6 harpidedunentzat
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g
Iruñea NAFARROA

www.planetario.org

2

Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

3

Joserra Senperena
10 trio piano, bolin eta akordeoirako

5 CD opari

Gaztelupeko Hotsak
Soraluze GIPUZKOA

www.hotsak.com

4

Okatxu

2 komiki opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2347. Argia)

BILBOKO EUSKAL MUSEOA

- Ibon Barrenetxea Olasolo (Bilbo)
- Tere Insausti Irastorza (Zaldibia)
- Xabier Allur Zunzunegi (Hernani)
- Auro Ansozregi Altzibar (Mutriku)
- Jabier Altzorritz Lardies (Bilbo)

SAN TELMO MUSEOA

- Odile Arrieta Laka (Donostia)
- Joxemari Muxika Arrieta (Arrasate)
- Nekane Ariz Eskisabel (Usurbil)
- Maritxu Etxezabal Larrañaga (Azpeitia)
- Jose Mari Ogando Rodriguez (Lekeitio)

INGURU ABENTURA elur-erraketa I. maila

- Xabier Iriarte Ansorena (Hernani)
- Miren Abalde Alzuart (Donostia)
- Iñaki Sagasta Arana (Arrasate)

BALERDI BALERDI & GIORGIO BASSMATTI

- Jose Antonio Zubeldia Gaztañaga (Donostia)
- Joxan Apaolaza Bernedo (Ojartzun)

ILLIMANI

- Gaintzako Udal Liburutegia (Gaintza)
- Jone Santamaria Azpiri (Donostia)


* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

gunea

argia

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30
Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com
www.argia.com/gunea





ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzearra, 1
Zumartegi industrialdea
☎ 943 37 11 50
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
www.atxegajauregia.com

